ttipi-ttapa

SANTU GUZTIEN EGUNA / 27

Bardoakeko finalean Leitza, Malerreka, Baztan eta Berako bertsolariak / 31

Plazaola inguruari erabilera emateko aukera aztergai dute Leitzan / 34

Almandozko harrobiko proiektua ez du onartu Batzar Orokorrak / 40

Joseba Larralde mendiko lasterkari beratarrarekin solasean / 46

SINADURAK

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI / **3**

AITOR AROTZENA ALBIZU / **3**

LOREA FLORES COMPAINS / **4**

XABIER MARITORENA ZUBIETA/ **4**

ZOZKETA / 56

Jabier ETXEBESTE ZAYAS

«BIDAIATUZ JENDEAK BIZITZEKO ZE GUTTI BEHAR DUEN IKASI DUT»

Filipinak, Estatu Batuak, Suedia, Australia, Zeelanda Berria, Malaysia... Hondarreko bi urteetan hamaika herrialde bisitatu ditu Jabier Etxebeste Zayas lesakarrak. «Bizitzako esperientzia» izan dela aitortu dio Ttipi-Ttapari, «egunerokoan etenaldi bat eragin» diona. / 8

Torturatuen bizipenak

Torturatuak izan diren eskualdeko bederatzi lagunen testigantzak bildu ditu Ttipi-Ttapak. / 10

BERA
LESAKA
Agenda
2020

URRIA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

BERAKO UDALA
LESAKAKO UDALA

16 ORTZIRALEA | DOKUMENTALA
Azken bidaia
(2011: Iurre Telleria eta Enara Goikoetxea)
18:00 Kultur etxean
Hizkuntza Euskaraz
(gaztelaniazko azpitituluekin)
Sarrera doan
Iraupena 90 min
Antolatzailea Berako Udala
Laguntzailea Nafarroako Gobernua
BERA

17 LARUNBATA | NAFARROAKO ANTZOKI SAREAREN ZIRKUITUA
Cóncavo-Convexo
Led Silhouette
19:00 Harriondoa Kultur Etxea
Sarrerak 6 €
Adina helduak eta gazteak
Zuzendaritza:
Jon López - Martxel Rodriguez
Antzezleak:
Martxel Rodriguez,
Gaizka Sarasola, Jon López

LESAKA

22 ORTZEGUNA | JARDUERAK
Autoezagutza. Nire gorputza, nire arauak
18:00 Txokobiko aretoa, Harriondoa
Aforoa mugatua
Adina helduak eta gazteak

Argibide gehiago:
692 18 92 86 Gizarte-ongizate arloa
Antolatzailea: Lesakako Udala
Laguntzaileak: Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Nafarroako Gobernua
LESAKA

23 ORTZIRALEA | KONTZERTUA
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa (hari sekzioa)
20:00 Kultur etxean
Iraupena 60 min
Sarrera 6 €
Antolatzailea Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala
BERA

29 ORTZEGUNA | JARDUERAK
Ziberfemenismoa. Emakumeak, sareak eta teknologia
18:00 Txokobiko aretoa, Harriondoa
Aforoa mugatua
Adina helduak eta gazteak
Argibide gehiago:
692 18 92 86 Gizarte-ongizate arloa
Antolatzailea: Lesakako Udala
Laguntzaileak: Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Nafarroako Gobernua
LESAKA

16-31 | ERAKUSKETA
Bidasoko deportatuak erakusketa ibiltaria
Non Kultur etxeko erakusgelan
Ordutegia
Ortzegunetik igandera irekia
Ordutegiak
Ortzeguna-ortziralea: 17:00-19:00
Larunbata-igandea: 11:00-13:00
Antolatzailea Memoria historikoa Bidasoan
Laguntzailea Berako Udala
BERA

bardoak 2020
Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa

Finala
LIZARRA
Urriak 17, larunbata.
Lizarra ikastolan, 17:00etan.

Atekaberts komeni (Leitza)
Lamixene (Bera)
Bertsonautak (Malerreka-Baztan)

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eta Lizarra Ikastolan (urriak 16ra arte)

Antolatzailea
bertsozale elkartea
hegan.oinez
LIZARRA IKASTOLA

www.bertsozale.eus

Laguntzailea
ttipi-ttapa

NIRE TXANDA

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI

15

15a urte borobila dela erran ohi dugu, eta sarri ospatzen dugu haren etorrera edo urtemuga. Izan ere, etengabe aldatzen ari den mundu honetan 15 urteren buruan gauza anitz alda daitezke, baina badira zenbait gauza nahi baino mantsoago aldatzen direnak. Urriaren 31n izanen da *Kotto*ren heriotzaren 15. urteurrena. Espetxe politikak eraman zuen *Kotto*, eta duela hilabete eskas, Igor Gonzalez Sola. 15 urte, eta egoera berdina.

Herri hau bere memoriari zor zaio, eta egia, aitortza eta erreparazioa dira urteetan sortutako zauria ixteko beharrezko bitartekoak. Dispertsioak irauten duen bitartean ezin izanen da gurean gertatu denaren kontakizuna amaitutzat eman, eta HBOk ezin izanen du gure herriaren historia kontaketaz betetako telesail batekin kontatu.

«BADIRA ZENBAIT GAUZA NAHI BAINO MANTSOAGO ALDATZEN DIRENAK»

Guk gure aldetik lanean jarraituko dugu, gertatutakoa oroituz bada ere. Urriaren 31n ahal bezala salatuko dugu bertze behin *Kotto*ren heriotza, eta egunero borrokatuko dugu denak etxean eta bizirik izan arte. Ea hemendik 15 urtera ez dagoen horrelako aldarririk egin beharrik.

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Non dago Mikel?

Nerabezaroko zuribeltzeko oroitzapenak: Endarlatsan ihes egin omen diola batek guardia zibilari, eskuak loturik (?!)… Gurutze Gorriko lantxak ibaian goiti eta beheiti aste osoan eta topatzen ez; eltzetzuek, bilatu gabe, harrapatu handik bolada batera, hilik… Lesakako bake-epailea, igandetan periodikoak saltzen zizkigun pelukeroa, gorpua trenbidera ateratzen…

NABARMENTZEKOAK

ENDIKA URRUTIA
ERREMONTISTA

Saldiastarrak erremonteko banakako bere lehenbiziko finala jokatu zuen irailaren 26an eta txapelarengandik hiru tantotara gelditu zen. Partida ederra jokatu eta estu hartu zuen txapelduna.

ANA MARI MARIN
MARGOLARIA

Abuztuaren 24an hil zen Elizondoko margolaria urriaren 23an omenduko dute. *Pregón* aldizkariak mahai-ingurua eta solasaldia antolatu ditu Elizondoko Arizkunenea kultur etxean.

ATZERA BEGIRA

2010-10-14 · TTIPI-TTAPA · 528 zk.

Zeliakiari buruzko xehetasunak ikasten

Zeliakiari buruzko erreportajea argitaratu zuen duela hamar urte Ttipi-Ttapak. Nafarroako Zeliakoen Elkarteko koordinatzaile Mari Jose Mortalena baztandarrak azaldu zituen hertze meharreko gaixotasun honi buruzko xehetasun gehiago, bertzeak bertze, «zeliakoa gaixotasun kronikoa duela» dela edota «zeliako batek urtean janarian zeliakoa ez den batek baino 1.800 euro gehiago gastatzen dituela» erranez. Garai hartan, Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Leitzaldea eta Urumealdean 30 bat zeliako zenbatuak zituzten. Horien artean, beraien bizipenak bertatik bertara kontatu zituzten Arantzazu Lizartza (Leitza) zeliakoak eta zeliakoaren ama den Adela Arlegik (Bera).

ttipi-ttapa
erran.eus
TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkartea

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra
mecna
Baztango euskara zerbitzua
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA

KOLABORAZIOAK

LOREA FLORES COMPAINS

Bertze energia eredu bat behar dugu

Azken aldian Nafarroan iskanbila handia sortzen ari da, martxan jarri nahi diren energia berriztagarriei lotutako hainbat proiekturen inguruan. Egia erran, hau sarri izan da gatazkarako gaia Nafarroan eta gure eskualdea ez dago afera honetatik salbu. Lesakan ere hainbat haize errota ezarri nahi dituztela jakin dugu. Gai korapilatsua da eta hainbat aldetatik begiratuz gero, irtenbidea ez dirudi erraza.

Ingurugiroaren aldetik, energia berriztagarriak erabat beharrezkoak dira klima aldaketaren ondorio latzenak pairatu nahi ez baditugu. Zientzialariek diotenez, 2030erako %100 energia berriztagarrietan oinarritutako sistema elektriko bat behar dugu eta 2050erako sistema energetiko osoa berriztagarri bihurtu. Nafarroan kontsumitzen dugun elektrizitatearen zati handi batek energia berriztagarrietan du jatorria dagoeneko. Baina, energiaren kontsumo totalari begiratuz gero, %20 baino ez da energia berriztagarrietan oinarritzen. EAEren kasuan egoera oraindik okerragoa da, energia berriztagarrien portzentajea %6koa baita. Beraz, honek adierazten digu, energia berriztagarrien sustapenean aitzinera egin behar dugula gure lurraldean klima aldaketari aitzin egin nahi badiogu.

Hala ere, aztertu behar dugu sustapen hau nola egin. Izan ere, gaur egun hartutako bideak, batez ere enpresen proiektu handietan oinarrituak, desoreka handiak sor ditzake. Honelako parke handiek sor ditzaketen ingurumen kalteez gain, badauzkate alde sozialean ere eraginak. Sarri ez da kontutan hartzen alderdi hau eta, ingurumen kalteekin gertatzen ez den bezala, ez dago ongi araututa. Maiz, parkeek eragiten dituzten kalteak jasaten dituzten pertsonak, ez dira onuradun nagusiak izaten, desoreka handiak sortuz. Maila globalean energia berriztagarriek denentzat onurak dakartzatela (klima aldaketaren aurkako tresna ezinbertzekoak direlako) egia bada ere, maila lokalean zailagoa da ikusten. Maila lokalean parkeek sortutako «suntsipena» pairatzen dugu, eta «kanpoko» enpresen esku gelditzen dira onura ekonomiko handienak.

«KONTSUMITZAILE HUTSAK IZATEARI UZTEA LORTU BEHAR DUGU»

Dena dela, ezin dugu proiektu hauen aurkako oposizio hutsean gelditu. Alternatibak bilatu behar ditugu. Bertzela, irudi dezake, kezkatzen diguna parke horiek gure etxean, gure inguruan, egitea dela, baina berdin izanen litzaigukeela bizilagunaren etxean, edo bertze nonbaiten egitea. Honen aitzinean norbanako bezala zein era antolatuan, sistema energetikoa eraldatzearen eta honetan gure parte-hartzea handiagoa izatearen alde borrokatu behar dugu. Energiaren autokontsumotik hasiz, gure etxeetan, ahal den heinean energia berriztagarrien instalazioak eginez, kooperatiba energetikoen bidez mundu horretan sartuz, edo instituzio eta indar politikoei egungo sistema energetikoaren eraldaketa eskatuz, hau ingurugiroarekiko orekan zein jendartearentzako justuagoa izan dadin. Hau da, herritar bezala, energia sisteman kontsumitzaile huts batzuk izateari uztea lortu behar dugu gure parte hartzea energia sistemaren arlo guztietara hedatuz.

XABIER MARITORENA ZUBIETA

Euskaraldia!

Datorren azaroaren 20tik abenduaren 4ra Euskaraldiaren bertze edizio bat ospatuko da. Euskaraldia hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial bat da eta bere helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzea du. Honetakoan *ahobizi* eta *belarriprest* izateko aukeraz gain *arigune* ere izanen da, taldeka parte hartzeko aukera izanez. Bakoitza bere etxetik hasi beharrean gaude, etxeko gaztelaniazko ohiturak, ohiturak bertzerik ez dira. Bikote eta familia harremanak euskaraz izan daitezkeenean zergatik gaztelaniaz egiten ditugun pentsatu behar dugu. Euskara ez da etxeko txikiekin eta txakurrarekin erabiltzeko hizkuntza. Euskara erabiliz haserretu gaitezke, euskaraz laguntza eska dezakegu, euskaraz berdin maita dezakegu. Akaso gaztelaniaz hobeki moldatzen denik ere egonen da, baina euskaraz mintzatzeko pausua ematen ez baduzu inoiz ez zara euskaraz gaztelaniaz bezain ongi moldatuko. Hasierako ohitura aldaketa hori uste baino errazagoa da eta konturatu orduko harremana erabat euskalduna bilakatuko da. Denbora, ilusioa eta pazientzia bertzerik ez dugu behar.

Etxetik plazara. Ostatura tragoa hartzera joaten garenean, bertze gurasoekin elkartzen edo barrideekin mintzatzen garenean ere pausuak emateko garaia da. Euskaraldiko txapa gainean eraman behar dugu, gure solaslagunari euskaraz mintzatzeko desira erakutsi. Nola ez, inguruan euskaraz ez dakien jendea dugu eta beti izanen dugu, baina tabernariari 'kafesne bat faborez' eskatzen badiot, ez du inongo zailtasunik izanen ulertzeko. Nire ez-euskaldun lagunari '*zerki egune*' galde egiten badiot berehala ulertuko du, lehenbizikoan ezpada bigarrenean. Euskalduna ez den jendearekin ezin zaigu sortu blokeo sistematiko bat non gaztelania hutsez mintzatzen hasten garen. Gure lagun kuadrillan ez-euskaldun bat izateak ezin gaitu bultzatu gaztelania hutsera mintzatzera. Lagun hori kuadrillan ongi sentiarazteko gaztelaniaz egiten dugu, baina ez diozu batere laguntzen gaztelaniaz bakarrik mintzatuz. Pertsona hori zure inguruan eroso sentiarazteko euskara entzuten eta ulertzen lagundu behar zaio, bertzenaz ez da inoiz jendarte euskaldun batean egokituko. Ez dut erraza denik erraten, baina benetan lagundu nahi badiozu, pixkanaka euskarazko hitzak sartzen hasi, '*atsalde on*' eta '*bihar artio*' hasteko, 'zer nahi duzu edateko?' gero, 'bihar bortzetan gelditu gara' bertze batean.

«BADA GARAIA LEHENBIZIKO HITZA BETI EUSKARAZ EGITEN HASTEKO»

Plazatik Euskal Herrira. Gure herrietatik ateratzean uste baino euskaldun gehiago gara baina ezjakintasunagatik erdaraz egiteko hautua hartzen dugu. Bada garaia lehenbiziko hitza beti euskaraz egiten hasteko. Berdin du udaletxera edo medikura joan, Iruñera erosketak egitera edo Donibane Garazira paseo bat ematera joan. Niretako segurik ederra da ezagutzen ez dudan jendeari egun ona ematean bertzeak ere 'egun on' erantzutea. Nire aurpegian maskarak tapatu ezin duen irria marrazten da, konplizitate bat sortuz. Hasi motorrak berotzen eta euskararen aldeko apustua egiten. Anje Duhalderen kantak dioen bezala, *maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago*. Biba euskara!

11 GALDERA LABUR

ANDONI MACICIOR MITXELENA ARANTZAKO GAZTEA

«Musikarik gabe erotu eginen ginateke»



Nor da Andoni Macicior?
Arantzan bizi den eta musika, kirola eta animaliak gustatzen zaizkion mutil gaztea. Zientziazalea ere banaiz.

Nondik heldu zaizu musikarekiko zaletasuna?
Etxean beti izan gara musikazaleak. Nire anaia izan da nire gustu musikalaren, nola erran... kausa nagusia (irri artean).

Gitarra jotzen duzu... noiztik?
Duela lau urte eta erdi hasi nintzen. Hasieran bateria jotzea pentsatu nuen baina gitarra oparitu zidaten eta... ordutik aunitz gustatzen zait. Anaiak erakutsi zidan eta, gero, bi urtez, herriko batzuei gitarra erakusten aritu nintzen.

Zer da musika zuretzat?
Pentsamenduak transmititzeko tresna bat. Hori egiteko kanta batek ez du soilik letra ona izan beharrik. Musikarik gabe erotu eginen ginateke.

Musika aditu, jo edo sortu?
Musika aditzea bizi-funtzio bat bezala da, barreneko 'nia' askatzeko beharrezkoa eta jotzeak edo sortzeak ere zeure buruarekin konektatzeko balio du.

'Uda da urteko sasoirik onena' hala dio zure kantu baten letrak...
Musika irakasgairako lan baterako musikarekin lotura zuen edozer egin behar izan genuen eta nik kanta bat egitea pentsatu nuen. Ez da munduko letrarik hoberena baina kantaren instrumentala dinamikoa da.

Aurtengo sasoirik onena izan da?
Birusaren kontua izan dugun arren, ongi pasatu dut. Bertze bizipen bat izan da eta ohitzea bertzerik ez dugu. Ez da zaila bestarik ez egitea edo maskararekin egotea, okerragoa izaten ahal zen.

Berriki bizitzako bertze etapa bat hasi duzu...
Gasteizen hasi naiz Lehen Hezkuntza gradua ikasten. Gero Gorputz Hezkuntzan sartu nahi dut.

Zer da Gasteizen herritik faltan botatzen duzuna?
Familia eta hango lagunak batez ere, haiekin erraketan aritzea edo ostatuan afaltzea, adibidez.

Zer du Arantzak bertze herriek ez dutena?
Herri dinamikoa da eta bertakoak zerbait antolatzen ari dira beti, kontzertuak edo jendea kontzientziatzeko hitzaldiak.

Amets bat?
Musika talde batean jotzea eta etorkizunean Gorputz Hezkuntza erakustea, edo kirolarekin lotutako zerbait egitea. Baina, batez ere, oraingo lagunekin harremanetan segitzea da nik nahi dudana.

IRAKURLEAK MINTZO

Leitzako Herri Mugimenduaren oharra

KATIXA ASTIBIA ARREGI ETA GARAZI ZABALETA URKIOLA LEITZAKO HERRI MUGIMENDUAREN IZENEAN

Jendarte justu, parekide eta aske baten alde borrokatzeak batzen gaitu herri mugimenduko eragileok. Jakin badakigu sistema kapitalista, patriarkal eta arrazista honek ez duela inolako erreparorik bere interesekoak ez diren herritarrak bazterrean utzi, zapaldu eta kolpatzeko: produzitzen ez dutenak, deseroso zaizkionak, bere arau sarriegitan injustuak onartzen ez dituenak eta horien kontra egiten dutenak.

Espetxeen papera argia da funtzio horretan: birgizarteratzea bezalako hitz politekin saldu nahi badigute ere, ederki frogatua dago egungo espetxe sistema pertsonak suntsitzeko makina ezin eraginkorragoa dela. Nola ulertu, bestela, azken aldian estatu espainoleko espetxeetan gertatzen ari diren heriotzak? 118 pertsonek, gutxienez, bizia galdu dute azken zortzi hilabeteotan estatuaren 'zaintzapean' zeudela. Ez da inolako ardurarik exijitu heriotza horien aurrean. Argi dago bizitza batzuek ez dutela gehiegi balio sistemarentzat.

Zenbaki horien atzean, ordea, pertsonak daude. Arrazoi ez naturalengatik bizitza espetxean galdu duten pertsonak. Hurbilekoengan zauriak eta samina eragin duten heriotzak. Ekidin zitezkeenak. Ez gara nekatuko kartzeletako bizi eta osasun baldintza tamalgarriak salatzeaz, Covid-19arekin are latzago bihurtu direnak gainera. Presoek modu sistematikoan jasotzen dituzten tratu txarrek, laguntza behar eta eskatzen duten presoei arreta ez eskaintzeak eta legea beraien kalterako soilik aplikatzeak harreman zuzena dute heriotza hauekin.

Zenbat gehiago behar dira jendarteak erreakzionatu dezan? Kartzela ez da soluzioa, kartzela arazoa da. Eta askorentzat honezkero beranduegi bada ere, garaia da arazoari aterabidea ematen hasteko. Kartzelarik gabeko mundu bat posible (eta beharrezko) dela sinistuta gaudelako, horrelako gehiago gerta ez daitezen borrokan jarraituko dugu.

Arartekoaren gomendioa: eremu mistoan ere, euskara gutxienez atzerriko hizkuntzen pare

FERMIN ZABALTZA ALEMAN ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

Nafarroako Arartekoak hainbatetan gomendatu dio Nafarroako Gobernuari euskara baloratzeko gutxienez ere atzerriko hizkuntzen pare, legeak 'eremu ez-euskaldun' deitutakoan. Oraingoan, ordea, gomendio bera egin dio baita mistorako ere; izan ere, PSNren, Geroa Bairen eta Ahal Duguren gobernu hau hasi da euskara ez baloratzen eremu mistoan ere, alemana, ingelesa eta frantsesa baloratzen dituen bitartean.

Zehazki, hau dio Arartekoak abuztuaren 24ko Q20/458 espedientean:

Arau baten bidez berma dezala «euskara, Nafarroako berezko hizkuntza izanik, ez dela baloratuko atzerriko hizkuntzak baino gutxiago, horiek merezimendu orokor gisa baloratzen direnean».

Eta bai, Nafarroako Gobernua ari da arau hori prestatzen, baina urtebete baino gehiago igaro da eta bitartean alemana baloratzen eta euskara ez baloratzen aritu da eremu mistoan eta 'ez-euskaldunean'. Zenbat denbora beharko dute PSNk, Geroa Baik eta Ahal Duguk euskara atzerriko hizkuntzak adina gutxienez baloratzen hasteko? Zergatik ez dago arazorik alemana, ingelesa eta frantsesa baloratzeko lan deialdietan eta zergatik dago hainbeste arazo geure hizkuntza baloratzeko? Zenbat denbora gehiago beharko da geure hizkuntza gutxienez atzerriko hizkuntzak adina baloratzeko Nafarroa guztian?

Kezka

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Euskaldunok oso musikazale izan gara. Aspaldikoa da esaera hau: *Euskaldun bat: txapela. Bi: pilota partida. Hiru: orfeoia, eta lau: mus partida*. Musika gure laguna izan dela argi agertzen da historian. Musika tradizionalaren sorterria zein den jakitea ia ezinezkoa da. Baina Herri bakoitzak bere ukitua, bere ezaugarria emanez, propioak bihurtu ditu. Sorterria zein den alde batera utziz, euskal musika herrikoia, tradizionala, ugaria eta musikalki oso aberatsa da, eta munduan, gorengoen mailan dago. Orain gutxi jakin dugu, Versallesen, XVII. eta XVIII.mendeetan, Frantziako errege Luis XIII.aren eta Luis XIV.aren garaian euskal musikaren melodiak eta dantzak entzuten eta ikusten zirela. Gogoratu behar da, garai haietan,Versalles, errege-etxea, Europako kultura-gune garrantzitsuena zela. Bertako musikari ospetsuenetako bat Marin Maraisen (1656-1728) bi obrak euskal izenez argitaratu zituen. Bata *Le Basque* eta bestea *Biscayenne*. Frantziako beste musikari ospetsu askoren obrak, *Bourrée de basque* edo *Bourrée pour les basques* izenburu dutenak, ezagutzen dira, euskal musika tradizionalean oinarrituz. *Bourrée* hitzak dantza tradizionala esan nahi du eta dantzak bere musika darama. Voltaire, Francois Marie Arouet frantses idazle, filosofo eta zientzialaria ospetsuak (1694-1778) euskaldunei buruz hau esan zuen: «Auñamendi, Pirinioetako alde bietan dantzatzen duen herria». Manuel Larramendi idazle eta euskaltzale ospetsuak (1690-1766) esaten du Euskal Herriko elizetako ospakizunak ez duela katedraletan egiten direnen inbidiarik. Bera Espainian barna, urtetan han eta hemen ibilia zen, Loiolara (Jesulagunen santutegira) etorri eta euskara munduan, buru-belarri sartu arte. Wilhelm Humboldt filologo alemanak ere, Berlingo unibertsitatearen sortzailea eta lehen erretoreak (1767-

IRAKURLEAK MINTZO
Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58

1835), badu dokumentu bat non hitz egiten duen euskal musikari buruz. Larramendi, Humboldt eta hauen aurrekoen garaitik urte asko pasatu dira, eta bitartean Euskal Herriak musikagile, organogile, organo-jotzaile eta abeslari bikainak eman ditu, ia denak elizari lotuta. Apaiztegiak, monasterioak eta komentuak izan dira ehunka urtetan, musikaren harrobi.

Gaurko musikaren harrobiak herri askotan dauden musika eskolak dira, baina organo ikasketak ez dira ematen, eta herri askotan organo bikainak izan arren, beren soinu zoragarriak entzuteko abagune gutxi dugu, gero eta organo-jotzaile gutxiago dagoelako. Martxa honetan, laster organo bat baino gehiago mutu gelditukо da, ez bada zerbait egiten. Gazte gehienek ez daukate aukerarik organoa ezagutzeko. Eta musika-tresna zoragarria eta hain tradizio luze eta bikaina duena ez ezagutzea onartezina da. Gazteei organo ikasketak egiteko erraztasunak eman behar zaizkie beste musika-tresnekin egiten den bezala. Herritarrok ere musika mota eder hau entzutea merezi dugu, ematen diren kontzertu erraldoi eta berezi batzuen esperoan egon gabe. Ez diezaiogun uko egin tradizio eder honi.

HEMEROTEKA

«Egunero sartzen gara Facebook edo Twitterren, ohatzetik altxa eta pixa egin aitzinetik sakelakoa eskuartean dugu eta hori bada kontrolatzeko modu bat, baita zerbaiten sintoma ere. Hori guztia hain barneratuta dugu ez garela ohartu ere egiten (...) Jendea animatu nahi nuke kontzertuetara joatera. Kultura segurua da, inongo kontzertutan ez da kutsatzerik eman, eta mundu horretan mugitzen garenok inoiz baino laguntza gehiago behar dugu».

PETTI I BERAKO MUSIKARIA I GARA. 2020.10.04



«Lan karga aise handiagoa izan dugu, ardura handiagoa, eta instalazioa toki seguru izateko neurriak hartu behar izan ditugu. Legearen arabera, lehorreko jardueretan pertsona bakoitzeko bortz metro koadroko espazioa behar da eta ahalik eta jarduera indibidualenak eskaintzen saiatu gara. Eskaintza zabala egin dugu eta pentsatzen genuena baino jende gehiago animatu da».

MARIA PLAZA I ELIZONDOKO KIROLDEGIKO KUDEATZAILEA I XORROXIN IRRATIA. 2020.10.04

BOTA BERTSOA

OIER ZULAIKA ARAKISTAIN
DONEZTEBEKO BERTSOZALEA

Besarkatu? Bai! Besarkatu!

Doinua: Iskin hontatik idazten dizut

Mendi gainetako aldarria
noiz denak etxeratuko
maskara, bakartze, hidrogela
'pe ce erre' ta musuko
etxeko, lagun, kide, umeen
besarkadak ezin uko
bihotzak, eskuak, irriak bat
nola ez dugu lortuko.

Une batez badirudi ere
dena latz dena malkarra
gazte, ume, adineko, herri
izan gaitezen bakarra
elkar harturik izango dugu
aurrera jotzeko indarra
ez digu inork inoiz kenduko
besarkada ta irrifarra.

ANA GALAR

Erronka pertsonal gisa joan zen Jabier Etxebeste Australiara eta ez da hartutako erabakiaz damutu. TTIPI-TTAPA

«Bakarrik eta edonon bizitzeko gai naizela ikusi ahal izan dut»

JABIER ETXEBESTE ZAYAS LESAKARRA

«Bizitzako esperientzia» izan da Jabier Etxebesterentzat Australiako bidaia, egunerokoan etenaldi bat eragin duena. Bizipen horren ondotik, ikasketei balioa emateko eta profesionalki garatzeko asmotan da

N.BAZTERRIKA | LESAKA

Filipinak, Estatu Batuak, Suedia, Australia, Zeelanda Berria, Malaysia... Hondarreko bi urteetan hamaika herrialde bisitatu ditu Jabier Etxebestek (Lesaka, 1993). Ikasketak bukatuta, «gozatzeko eta bizitza bizitzeko momentua» zela iritzita, maleta bizipenez betetzeko herritik ateratzea erabaki zuen. Lehenbiziko sei hilabetetan egonaldi laburrak egin zituen; gerora, ordea, urtebeteko bisa lortu eta Australiara joan zen. Lan egiteko eta gozatzeko aukera eman zion bertako egonaldiak. Are gehiago, bertan aurreztutakoari esker, bidaiatzen segitu ahal izan zuen. Koronabirusagatik aurreikuspenak aldatu behar izan zituen eta itxialdia Malaysiako Tioman irlan pasatu zuen. Bateko eta bertzeko bizipenez eta egungo eta etorkizuneko asmoez aritu da TTIPI-TTAPArekin.

Iruñean ingeniaritza industriala ikasi zenuen. Zergatik aukeratu zenuen bide hori hartzea?

Ez nuen argi zer ikasi nahi nuen... Arkitekturan eman nuen izena, baina krisi garaia zen eta nahiko gaizki zegoen alorra zen. Hortaz, bide zabalena hartzea erabaki nuen. Tuteran diseinu mekaniko arloko ingeniaritza ikasten hasi nintzen eta bigarren ikasturtean Iruñera jo nuen, ingeniaritza industriala ikastera. Gradua bukatuta, jarraipena emateko, bertze bi urtez ingeniaritza industriala masterra egin nuen. Hori akitu nuenean, Master Bukaerako Lana egiteko Ingalaterrara joan nintzen eta han, sei hilabetez, enpresa batean praktikak egin nituen.

«MALAYSIAKO IRLA BATEAN EGON GINEN 85 EGUNEZ, BAKARTUTA»

«ORAIN INGENIARI GISA LANA HARRAPATU NAHIKO NUKE»

Ingeniaritza ikasketak gogorrak direla aipatu ohi da maiz... Nola oroitzen dituzu ikasketa urteak?

Zailak eta luzeak izan ziren, sei urtez ordu aunitz pasatu nituen ikasten... Aunitz ikasiagatik, azterketen presio handia izaten nuen eta emaitzak ez ziren ikasitakoaren isla...

Ikasketak akituta Australiara joatea erabaki zenuen...

2018ko uztailean, ikasketak bukatu nituenean, ez nuen enpresa batean sartzeko gogorik, eguneroko martxarekin hautsi nahi nuen. Ikasturtean zehar ikasketetan nuen burua eta udan aitaren enpresan lanean ari nintzenez ez nuen bidaiatzeko astirik... Nahi nuena egin nahi nuen. Lagun batzuekin Filipinetara, bertze batzuekin Estatu Batuetara, lagun bat bisitatzera Suediara... joan nintzen. Horrela pasatu nituen sei hilabete. Filipinetara joan nintzenerako Australiara urtebete pasatzera joateko bisa hartua nuen eta bertan Elizondoko lagunei nire asmoa zein zen aipatu nien. Lagun batek, Xabier Iruretagoienak, berak ere joateko gogoa zuela aipatu zidan... Azkenean biok joan ginen.

Zenbat denbora egon zara Australian?

Nik bisa urtebeterako nuen. Lagunak, berriz, ikasketak egiteko bisa hartu zuen. Melbournen zazpi hilabete pasatu nituen, gero Vietnamera, Filipinetara eta Kanbodiara joan nintzen. Berriz bueltatu eta Sidneyen egon nintzen. Han nintzela aprobetxatuz, bisa bukatu zitzaidanean, Zeelanda Berrira, Indonesiara... bidaiatu nuen. 2019ko otsailean joan nintzen eta urte eta erdiz batetik bertzera ibili naiz.

Zergatik aukeratu zenuen Australia?

Munduaren bertze puntara joateko momentua zen, lanean hasi edo familia izan aitzinetik...

Bidaia hori erronka pertsonal gisa hartu zenuen...

Bai, edozein tokitan eta inoren beharrik gabe bizia ateratzeko gai naizela ikustea nuen erronkatzat. Lana harrapatu nuen, pisua… Edozein traba gainditzeko gai nintzela ikusi nahi nuen eta, bide batez, jendea ezagutu, ongi pasatu…

Hango bizimodura egokitzea erraza izan zen?

Lana harrapatzeko hango jendeari galdetu eta dagoen horretara egokitzea bertzerik ez dago. Hasieran lagun baten bidez hotelak eta apartamentuak garbitzen aritu nintzen. Hori aski nuen janaria eta pisua ordaintzeko, baina gero bidaiatzeko aurreztu nahi nuen… Bilatu eta bilatu aritu ondotik, logistika enpresa bateko biltegian harrapatu nuen lana. Kaxak altxatzen aritu naiz, lan aspergarria zen baina ongi irabazten nuen. Ongi bizi izan nintzen eta hala ere, gero bidaiatzeko diru nahikoa gorde nuen. Harreman aldetik ere, hagitz aberasgarria izan da. Xabier eta biok agentzia batekin harremanetan jarri ginen. Jende aunitz ezagutu genuen, hagitz ongi moldatu ginen eta harremana mantendu dugu.

Tartean, Australiatik Zeelanda berrira bidaiatu zenuen…

Otsailaren 13an atera nintzen, bisa bukatu zitzaidalako. Sidneyen egin nuen lagun bat, Bartzelonatik joan zitzaizkion bi lagun eta laurok furgoneta bat hartu eta biastetarako joan ginen. Karabanan izandako esperientzia, bertako parajeak, edozein tokitan aparkatu eta argitzeko momentuaz gozatzea… ederra izan zen. Gero Juan eta biok berriz Australiara bueltatu ginen, turistentzako bisarekin eta bertze biak Malaysiara joan ziren.

Pixkanaka etxera bueltatzeko nahia piztu zitzaizun… Noiz hartu zenuen bueltatzeko erabakia?

Hasierako asmoa Australiara eta Zeelanda Berrira joatea zen. Gero, dirua bukatu arte bidaiatzen segitzea erabaki nuen. Indonesiara joan nintzen. Ondotik, Filipinetara, Japoniara, Hego Koreara… joateko asmotan nintzen, baina koronabirusak dena aldatu zuen. Zeelanda Berriko lagunak Malaysian zeuden eta bi aukera nituen: etxera bueltatu edo Malaysiara joan. Ez nuenez etxera bueltatu nahi, martxoaren 17an hegazkin bat hartu eta bertara joan nintzen. Momentu horretan hilabeteko kontua izanen zela zioten eta hilabetez han egoteko eta ondotik bidaiarekin segitzeko asmoz joan nintzen.

Etxebeste Melbournen egin zituen lagunekin. UTZITAKOA

Malaysian pasatu zenuen itxialdia. Nolako esperientzia izan da?

Bai, Bartzelonan zeuden bi lagunekin Malaysian elkartu nintzen eta, liburu batean begiratuta, Tioman irlara joatea erabaki genuen. Zer harrapatuko genuen jakin gabe joan ginen eta izugarrizko suertea izan genuen. Gero, konfinamenduagatik, ezin izan zen inor etxetik atera eta gu irlan geunden… Irla nahiko handia bada ere, bakartuta zegoen gune batean geunden, ezin ginen inora joan eta ezin zen inor etorri. Guztira hamaika atzerritar geunden, bertako 100 bat malaysiarrekin. Harreman hagitz ona egin genuen haiekin. Irlan bertan 85 egun pasatu genituen: hondartzan, urpean igeri egiteko ikastaroak egin genituen, kartetan aritzen ginen, barbakoa egiten genuen… Ez nuen deusen faltarik izan, ez nintzen munduan pasatzen ari zenaz ohartzen, konfinamendua zer den ez dugu ezagutu. Pixkanaka jendea nazkatu egin zen, janariarekin bereziki, ostatuan arroza eta oilaskoa izaten zen egunero... Bertzeak lehenago joan ziren eta, azkenean, lagunak eta ni bakarrik gelditu ginen… Denbora pasatu ahala, nekatzen hasi ginen, ez genuelako deus egiteko. Malaysian bidaiatzeko mugak ireki zituztenean, saiatu ginen baina ez zuela merezi ohartu ginen, toki gehienak itxita zeuden...

Zer ikasi duzu esperientzia horri esker?

Jendeak ze gutti behar duen bizitzeko. Malaysian, adibidez, haurrek ez zuten deus behar jostatzeko. Gurasoek haurrei askatasun handia ematen diete eta lasai bizi dira, presarik gabe. Australian bertze errealitate bat ezagutu dut… Jende aunitz ezagutu dut, adin eta asmo antzekoak zituztenak… hori gustatu zait baina... Malaysian bertakoak bagina bezala zaindu gaituzte.

Irail hasieran bueltatu zinen herrira… Zein da orain zure asmoa?

Oraindik gaztea naizen arren, hainbeste denbora eta esfortzu kosta zitzaidan karrerari eta masterrari balioa eman nahi diot. Ikasketekin lotura duen lan bat bilatzeko asmoa dut. Ez dakit hemen, Iruñean, Donostian… izanen den edo urrutiago, ateak irekita ditut eta dagoen tokira joanen naiz. Probatu eta gero ikusiko da...

Eta epe luzera begira… halako esperientziaren bat berriz bizitzeko asmorik baduzu?

Bizitzako esperientzia izatea zen asmoa baina gustura egon naiz. Denbora luzez ez badut lanik harrapatzen bertze bisa bat eskatzen saiatuko naiz, Kanadara joan eta ingeniaritza munduan lan egiteko. Halere, ez da hori nire lehentasuna.

Motzean

Zeure burua hitz gutxitan.
Lasaia, ulerkorra, abenturazalea, hiztuna eta irekia.
Bidaiatzea ez den zaletasun bat?
Musika jotzea eta futbola ikustea.
Bidaiak bakarrik edo taldean?
Bidaia hoberenak bakarrik egin ditut. Halakoek irekitzeko eta geure burua ezagutzeko aukera ematen dute.
Bisitatzear duzun herrialde bat?
Hurrengoa Argentina eta Txilera eginen nuke.
Bisitatu duzun txoko politena?
Filipinak aunitz gustatu zitzaidan, baina bizi garen ingurua hagitz polita da. Beti bertzeena politagoa iruditzen zaigu…
Bidaiatzeko aholku bat?
Lasai joatea eta bertako bizimodura egokitzea.
Bidaia antolatuak edo inprobisatuak?
Inprobisatuak.

Torturaren minak utzitako arrasto luzea

Torturatuak izan diren eskualdeko bederatzi lagunen testigantzak bildu ditu Ttipi-Ttapak, baita giza eskubideen urraketak biltzen diharduen Izaskun Rekarte Bengoetxea Berako gaztearena ere. Rekartek eskualdean «uste baino tortura kasu gehiago» daudela adierazi du

G. PIKABEA

«Gaur-gaurkoz eskualdeko 90 bat tortura kasu daude egiaztatuta. Baina oraindik ikerketa abian da eta kopurua handiagoa izanen da». Halaxe baieztatu digu Izaskun Rekarte Bengoetxea (Bera, 1997) Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologia Institutuko ikerlariak. Nafarroako Gobernuak hala eskatuta, 1960tik 1978ra bitarte Nafarroan gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzen hasi zen, bertzeak bertze, Pako Etxeberria mediku forentsearekin eta Laura Pego zuzenbidean doktorearekin. Egindako lana «Nafarroako Gobernuari bidali genion» baina bidea ez zen hor bukatu. Kontatu digunez, «nire ikerketa taldeak eta nik neuk ere, Euskal Herrian gertatu diren giza eskubideen urraketak aztertzen segitzen dugu». Gaineratu digunez, «txosten hauek bide bat eraiki eta ireki digute eta ez dugu aukera galtzen utzi nahi».

Uste baino gehiago

Tratu txarrak eta torturak jasan zituztenen testigantzak biltzen aritzen da Rekarte «informazioa bildu, aztertu eta sailkatzen», eta aitortu digunez, sorpresa hartu du eskualdeko datuekin: «ikerketan parte hartzeko eskatu zidatenean ez nekien gure eskualdean tortura polizialak jasandakorik zegoenik ere. Nire harridurarako, Pako Etxeberriak irri egin eta lanean hasitakoan torturaren hedapenaz ohartuko nintzela erran zidan. Eta egia izan zen». Bere hitzetan, «gure eskualdean uste baino tortura, tratu txar eta giza eskubideen urraketa gehiago izan dira».

Herritik herrira egoera ez omen da hain aldakorra, «aldeak nahiko ttikiak dira», dio, baina «espainiar estatuaren eta frantziar estatuaren mugan kokatzen diren herrietan polizia kopurua handiagoa izan da, baita bertako herritarrek pairatutako jazarpena ere». Horrez gain, «egoera politikoa ezegonkorra izan den urteetan tortura nahiz tratu txar kopuruek nabarmen goiti» egin dutela gaineratu du.

Denetariko kasuak

Orain arte bildu dituen 90 kasuen artean, «mota guztietakoak» topatu omen ditu: «batzuek ez dute sekula beraien esperientzia argitara eman, bertze batzuek bai. Bada bere burua torturatu gisa identifikatzen ez duenik ere, nahiz eta jazarpen maila hagitz altua izan. Batzuek bizi osorako ondorio fisikoak dituzte, eta gehiengoek ondorio psikologikoak». Eta txanponaren bertze aldean, berriz, «denetarik» omen dago. «Talde polizialei dagokionez, eskualdean denetarik dugu: Guardia Zibila, GAL, Polizia Nazionala, Jendarmeria...». Horiengandik jasotakoak izan omen dira eskualdeko giza eskubide urraketa gehienak. «Hala ere, gehiengoa Guardia Zibilaren eskuetan torturatua izan da».

Iosu Unsion Pabolleta, Josu Goienetxe Etxebere, Joxemi Arizmendi Bereau, Jose Mari Aldako Aleman, Dabid Altzugarai Mendiberri, Bittor Jauregi Aleman, Andres Arnal Sansiñena eta Xotero Etxandi Juanikotenarenak dira Rekartek bildu dituen testigantza horietako batzuk, baita bizitakoa Ttipi-Tapari kontatu diotenak ere, Josu Iparragirre Lukanbioren gisa. Hunkituta mintzatu dira batzuk, minari ezin eutsiz bertze batzuk, xehetasunik ttikiena ere ongi aski oroitzen dutenak ere badira baita hutsune batzuk badituztenak ere... Bederatzi bizipen, itxi ez diren bederatzi zauri. Testigantza horietako bakoitzaren bertsio luzeagoa leitzeko aukera izanen duzue ondoko egunetan Erran.eus atarian.

Bizipenak biltzen segitzeko prest

Ikerketak aitzinera segitzen duenez, bidea irekita utzi nahi du Izaskun Rekartek: «norbaitek bere bizipena nahiz familiako kide baten esperientzia helarazi nahi izanez gero, gurekin harremanetan jar daiteke».

«USTE BAINO TORTURA GEHIAGO IZAN DIRA»

IZASKUN REKARTE, IKERLARIA

«JAZARPENA HANDIAGO IZAN DA MUGAKO HERRIETAN»

IZASKUN REKARTE, IKERLARIA

Josu Iparragirre Lukanbio Arantzan sortua da baina Leitzan bizi da.

«Nahiago izaten dut torturaz deus ez kontatu»

«Bi aldiz torturatu» zuten Josu Iparragirre (Arantza, 1952). Aurrenekoz 1978an: «Iruñera eraman eta otsoak bezala kolpeka hasi ziren». Gehiago ere bai: «lehenbiziko gauean mendira eraman eta nahi zutena egin zidaten: pistola ahoan eta buruan jarri, ihes egiteko eta tiro emanen zidatela esan, jo, mehatxatu… Tiro bat eman ziezadaten nahi nuen». Psikologikoa ere gogoan du: «mina non eman ohartzen badira, horrekin saiatzen dira». Hamar bat urtera hartu zuten berriz, «baina oso diferentea izan zen, banekielako nola jokatuko zuten». Halere, errefuxiatu egon zen denboran «estatu frantziarrean jasandako tortura psikologikoa» okerragoa egin zitzaion: «oso gaizki pasatu nuen». Onartu digunez, «nahiago izaten dut deus ez kontatu», baina aldi honetan, «behar bat» sentituta erabaki du publiko egitea».

Josu Goienetxe Etxeberek xehetasun handiz oroitzen du dena.

«Egin zidatenak gogorragoa izaten erakutsi dit»

«Soldaduskako baimenarekin etxera etorria» zela atxilotu zuten Josu Goienetxe (Amaiur, 1961). Madrilera bidean «egurra» eman ziotela dio, eta hara ailegatuta, «autotik jaitsi orduko mangerarekin egin zidaten lurrera erori arte eta telefono-gidarekin buruan kolpeak eta kolpeak». Bai Madrilen, bai bueltan Donostian, baita berriz Madrilera eraman zutenean ere, «kolpeak» etengabeak izan zirela aipatu digu, «gorputzean, barrabiletan, iletik tiraka, bainuontzian burua sartu...». Gogorrena, ordea, psikologikoa izan omen zen: «ama eskoba kirtenarekin bortxatu zutela edo hil zela erraten zidaten». Gehiago ere bai: «buruan pistola paratu eta batek katua sakatuz *klak* egiten zuen bitartean bigarrenak tiroa botatzen zuen. Bertan gelditu nahi izan nuen». Gertatutakoak «gogorragoa izaten» erakutsi omen dio.

Iosu Unsion Pabolletak «infernua» bailitzan oroitzen du gertatutakoa.

«Urte aunitz pasatu dira baina oroitzapenek bizi-bizi segitzen dute»

«Infernua» bailitzan oroitzen ditu Iosu Unsionek (Bera, 1955) 1994an Guardia Zibilak atxilotuta pasatutako egunak. «Hagitz gogorra» izan zela dio, eta aitortu digunez, «urte aunitz igaro dira torturak jasan nituenetik, baina oroitzapenek bizi-bizi segitzen dute». Etxean atxilotu zuten eta handik Donostiara eta gero Madrilera eraman zuten: «bi polizia talde bereizi nituen, bat Donostiakoa eta bertzea Madrilekoa; txandatu egiten ziren ni jipoitzeko». Tortura fisikoak eta psikologikoak jasan omen zituen: «Etxean, miatu bitartean, pistola buruan paratu zidaten. Kotxean sartuta, irainak, mehatxuak eta kolpeak ohikoak izan ziren. Gero, mehatxuak, ariketa fisikoa eta poltsa etengabe, buruan liburu batekin kolpeak, elektrodoak... Gurutze Iantzi eta Mikel Zabalza bezala amaituko nuela erran zidaten».

Joxemi Arizmendi Bereauk sei egun igaro zituen inkomunikatuta.

«Sei egun egin nituen inkomunikatuta eta handik jota atera nintzen»

«Sei egun egin nituen inkomunikatuta, eta handik jota atera nintzen». Hala aitortu digu Joxemi Arizmendik (Elizondo, 1957) hunkituta. «Gogorra» egiten zaio torturei buruz solastatzea. «Guardia zibilek egurtu» zutela dio, «poltsa» ere egin ziotela, eta «patata zaku bat» bailitzan ibili zutela. «Drogatu» zutelakoan dago eta kolpeen ondorioz, «gorputza hanpatua» eduki zuela kontatu digu: «hori hasierako egunetan izan zen eta ondokoetan, hanpadura beheititzeko pomada eman zidaten». Mehatxuak ere jasan omen zituen eta hunkitu egiten da mehatxu horietan «ama» aipatzen ziotela oroitzean. Madrilen epailearen aitzinetik pasatutakoan, libre utzi zuten, «jota eta sosik gabe» eta etxera bueltatutakoan, «hiru hilabete bajan» pasatu omen zituen. «Ez dut sekula atzenduko pasatutakoa».

Jose Mari Aldako Alemanek komisariatik ihes egin zuen.

«Ordu guti izan ziren baina kolpeka egurtu ninduten»

«20 ordu pasatu eta 20 urte zirela iruditu» zitzaion Jose Mari Aldakori (Elizondo, 1956). «Egurra eman» ziotela dio, «kolpeak barrabiletan, kolpeak telefono-gidarekin buruan, borrarekin hanketan, poltsa... Ez dakit zenbat aldiz erori nintzen lurrera. Tiroka ziezadaten desiratu nuen, bertan gelditzea». Komunera eraman zutenean aprobetxatu zuen: «eskailerak ikusi, salto egin eta ihes egin nuen». «Sasi artean izorratuta eta ikaratuta» ibili omen zen «epailearen aitzinean» aurkeztu zen arte: «politikoki ez zuten frogarik eta komisariatik ihes egin nuelako espetxeratu ninduten». Etxera bueltan, «urtebete izorratuta» pasatu omen zuen: «egunero ohatze azpian begiratzen nuen, egunero kontrolean geldiarazten ninduten...». Argi du: «iritzira ibiltzen ziren eta zerbait jakinez gero, aitortzen zenuen».

David Altzugarai Mendiberrik gogorra izan zela kontatu du.

«Hainbertze poltsa eginez ahotik odoletan hasi nintzen»

«Bidean ez nituen hainbertze kolpe hartu, baina behin Iruñera ailegatuta ederki astindu ninduten, bazuten gogoa». David Altzugarairen solasak dira (Elizondo, 1964): «paretaren kontra aulkian jarri eta poltsa egiten hasi ziren, hatsik gabe gelditu arte, tarteka aulkia kendu eta lurrera erortzen nintzen. Poltsa bakarrarekin erraza zela eta, aldi berean hiru paratu zizkidaten eta bizkarrean kolpe gogorrak eman zizkidaten». Une batean «ahotik odola bota» zuela ere gogoan du, baita ondotik, «medikua eta abokatua zirela erranez egindako itxurak» ere. Madrilen zela «zutik eta kokoriko makilakadak» hartu omen zituen eta «etengabe grabatutako garrasiak aditzen nituen, ni izutzeko». Gaiaz «brometan» solastatu izan dela dioen arren, «gogorra» izan zela onartu du, «bai niri gertatua baita lagunei ere».

Bittor Jauregi Alemanek «airoso samar» atera zela uste du.

«Poltsarekin aunitzetan pentsatu nuen 'hiltzen banaute, hobe'»

Arizkungo bestetatik bueltan, sortetxean atxilotu zuten Bittor Jauregi (Amaiur, 1958). Autoan sartu orduko «'presta zaitez kobratzeko' erranez» hasi zitzaizkiola dio, eta Iruñera ailegatuta, «poltsa eta flexioak eginarazi zizkidaten». Hala «izorratuko nindutela» pentsatu zuen, eta «egin edo ez, kolpeak berdin emanen zizkidatela ikusita, agindutakoa ez egitea eta isilik gelditzea pentsatu nuen. Itoarena ere egin nuen, eta nahiko ongi atera zitzaidan». Aitortu digunez, «denbora pila eman nuen poltsarekin, uretan sartu eta gehiago egin zizkidaten, etxekoen inguruan mehatxuak...». Madrilen ere «kolpeak eman zizkidaten baina ez zen hain gogorra izan». Maiz pentsatu omen zuen «hiltzen banaute, hobe»; «hatsa falta izatea gogorra» egin zitzaion, baina «azkenean airoso samar atera nintzen».

Andres Arnal Sansiñenak gertatuak «izugarri eragin» diola aipatu du.

«Beldurra betirako gure oroimenean izanen dugu»

Amaren etxean atxilotu zuten Andres Arnal (Elizondo, 1967) eta «Belaten poltsa» paratu eta «odolez eta pixaz betetako manta edo koltxoia zegoen kalabozora» eraman omen zuten. Poltsa eginez, «izerditan blai» egon zela eta «telefono-gida batekin buruan eta eskuekin gorputzean hartutako kolpeak...» gogoan ditu. Gehiago ere bai: «femurretik operatua nintzen eta aldaka izorratuarekin atera nintzen». Baina hori baino lehen, «gauero etxeko atean nituen, zelatatzeko transmisore bat paratu zidaten kotxean, korroan hartu eta jotzen ninduten, segitzen zidaten...». Iruñean lehenbizi eta Madrilen gero lauzpabortz egunez eduki zuten eta tarte horretan «hartutako golpeek baino min handiagoa egin zidan beldurrak». Urteak pasatu arren, «ez dut atzendu. Beldurra betirako gelditzen da».

Xotero Etxandi Juanikotenak hiru aldiz torturatu zutela salatu du.

«Urtetan kontrakoa sentitu izan dut baina torturek lur jota utzi naute»

«Urtetan ondoriorik ez dudala izan sentitu izan dut, indartsu. Baina ez, gerora ohartu naiz torturek markatuta utzi nautela, lur jota». Hala dio Xotero Etxandik (Arraioz, 1956). Hiru alditan atxilotu dute eta «hiruretan torturatu eta denetarik egin didate»: «kolpatu, poltsa egin, gainean saltoka ibili, eskuak bota militarrekin zapatu, soka batekin lepotik hartuta eta hankak oin-bilurrez lotuak mendian ibilarazi, paretaren kontra larrua jotzeko itxura egitera behartu, makila ipurditik sartu, etxekoekin mehatxuak...». Behin baino gehiagotan desiratu omen du «bertan hiltzea, jasanezina delako». Areago: «guardia zibilek desagertzeko hautagaia nintzen». Bertzetik, «publikoki gertatu zena kontatzea zaila» egiten bazaio ere, «moralki egiteko beharra» sentitu izan du eta «orain kontent nago egin dudalako».

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

*DEPENDE ZER ESKATZEN DUZUN...

* Izartxoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Euskaraz, ***depende*** ez da esamolde egokia. Honela adieraz daiteke bertzela:

1- Aditz nagusirik gabeko zehar-galderen bidez <[aditz nagusia] + ZER/NOR/ZEIN/NON/NOIZ... + -(e)N> moldearen bidez)

-Nik eskatutako guztia eginen duzu?

-*Depende zer/nola/noiz eskatzen duzun.

> Zer/nola/noiz eskatzen duzun.

2- Perpaus nagusia ere emanez: *ikusi egin behar, jakin egin behar, ez da berdin, alde handia da, aunitz erran nahi du* eta gisakoez baliatuz:

-Ikusi egin behar... nola joan behar duen.
-Jakin egin behar... norentzat den.
-Ez da berdin... non edukitzeko den.
-Alde handia dago... nori erraten diozun.
-Aunitz erran nahi du... nork erran duen.

Zein da zuzena?

***Atoz/hatoz euskaltegira euskara ikastera** ala **Zatoz euskaltegira euskara ikastera?**

Etorri aditzak modu trinkoan *zatoz* eta *zatozte* baino ez ditu hartzen horien ordezko aginterazko formetan. Hortaz, ****atoz / *hatoz / *atozte / *hatozte*** ez dira zuzenak:

- ***Atoz/ *hatoz euskaltegira euskara ikastera** > **Zatoz euskaltegira euskara ikastera.**

-***Atozte/ *Hatozte gurekin mendira** > **Zatozte gurekin mendira.**

Nola erran?

Lot ezazu bakoitza bere bikotearekin!

AUZOTAR	ERRANAIRU
JANTZI	ARATXE
TXAHAL	AHUSPEZ
BURUZ BEHERA	HATSANKA
ESAERA ZAHAR	BARRIDE
ARNASESTUKA	BEZTITU

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

info@ttipi.eus

744 48 43 61

«Lesaka inguruko osasun arreta arrisku larrian dago»

Egoerak bere horretan jarraitzen badu Lesaka inguruko osasun arreta arriskuan dagoela salatu dute langileek

Urriaren 1az geroztik hainbat kanpostu hutsik dituztela jakinarazi dute.

TTIPI-TTAPA

Lesakako Osasun zentroko lehen mailako arretan ari diren profesionalek oharra kaleratu dute, «duela urte batzuetatik lanean dugun prekarietate egoera» salatzeko, eta aldi berean, «azken hilabeteotan pandemiaren eraginez, egoerak okerrera» egin duela adierazteko.

Lanpostuak hutsik

Urriaren 1az geroztik hainbat lanpostu hutsik dituztela jakinarazi dute: Lesakan mediku baten plaza, larrialdietako lantaldean mediku baten plaza, Beran lanaldiaren %40 edukiko lukeen pediatra baten plaza, Beran administrari baten plaza, Arantzan %50ean aritzeko administrari baten plaza (baita larunbat goizetan ere) eta Lesakako kontsultan 2020ko otsailaz geroztik hutsik dagoen mediku-errehabilitatzaile baten plaza.

Kritiko mintzatu dira administrazioarekin. Izan ere, adierazi dutenez, «administrazioak duela hilabete batzuetatik bazekien zein zen gure egoera eta azkenean, urriaren 1etik aitzinera egia bihurtu da, orduan kokatzen baitira langileak lanpostuetan, gure kasuan, lau plaza hutsik utziz». Covid-19aren ondorioz, «egoerak okerrera» egin dutela diote: «lehendik eskatuak eta onartuak ziren baliabideak bete gabe gelditu dira edo aldez aurretik zeudenak eten dira».

Ez hori bakarrik. «Orain arte gainerako lantaldearen esfortzuari esker moldatu» badira ere, «hemendik aitzinera herritarren zati handi bat erreferentzia-profesionalik gabe geldituko dela» nabarmendu dute. Herritarrek adierazi duten ulermena eta kolaborazioa ere eskertu nahi izan dituzte.

Lehen mailako arretan «prekarietatean» ari direla diote, baina «hala ere, gaixo kronikoak, Covid-19a dutenak, larrialdiak, auto-istripuak... artatzen segitzen dugu. Agenda amaigabeak gure gain hartzen ditugu, behar baino aunitz ere ordu gehiagoko lanaldiak egiten ditugu, gure ibilgailuak erabitzen ditugu, gure jantziak, gure telefonoak... Mediku nahiz erizainen oinarrizko unitate bakoitzeko egunean bana bertze sei etxetara joaten gara, erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden sei profesional ditugu... Baina denak muga bat du». Iruñetik urruti izanda, «gure eskualdeko osasun zerbitzua estaltzea zaila dela» jakitun direla onartu dute; «hala ere, edozein aitzakia ez da onargarria gure herritarrak behar bezalako baldintzetan artatuak ez izateko».

Osasun arreta arriskuan

Egoera ikusita, «berehalako irtenbidea» eskatu dute, «momentuko egoera txarra delako eta okerrera egin dezakeelako». Are gehiago: «Lesaka inguruko osasun arreta arrisku larrian dago, eta oraingo osasun profesionalok ezin izanen dugu segitu baldintzak ez badira hobetzen».

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

Goieko
INDUSTRIA GÁRBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINBERA
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

LABE ZAR
948 631 076 • BERA
Astelehenetik ortziralera: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak
Zerbitzua euskaraz ematen dut.
Deitu eta solastatuko gara.
BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

Arturo
Mila esker gurekin bat egiteagatik!
arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

Urriaren hirugarren igandean ez da Lurraren Egunik ospatuko. ARTXIBOKOA

34. Lurraren Eguna bertan behera uztea erabaki dute

Antolatzaileek jende pilaketak ekiditeko ospakizuna aurten ez antolatzea erabaki dute

IZASKUN REKARTE

Covid-19 pandemiak hainbat ospakizun bertan behera uztera behartu du, baita Berako 34. Lurraren Eguna ere. Aurten urriaren 25ean ospatuko litzateke artisauen azoka.

Bittori Teiletxea antolatzailearen hitzetan, «Lurraren Eguna harremanak izateko eguna da», eta, momentu honetan, j«ende pilaketak ekidin behar direnez», arduradunek ekitaldirik ez antolatzea erabaki dute.

Urtetik urtera, Lurraren egunak jende gehiago biltzea lortu duela adierazi du beratarrak, baita, tamalez, hasierako baserritar haien postuak geroz eta urriagoak direla ere. «Gaur egun, arruntagoak dira eskulangile nahiz artisauen postuak topatzea», dio.

Egoerak uzten duenean Berako Kultur Batzordeak, Gure Txokoa elkarteak eta ikastetxeetako gurasoek elkartu eta Lurraren Eguneko 34. edizioa antolatzeko asmoa dutela adierazi dute.

Lurraren Egunaren ordez egin litezkeen ekitaldien nondik norakoak zehazteko, antolatzaileek urriaren 7an batzar bat egitekoa zuten.

UTZITAKOA

Erlauntza antzerkia urriaren 15ean

Goldatz Berako Emakume Talde Feministak antolatuta *Erlauntza* antzezlana eskainiko dute urriaren 15ean, ortzegunean19:00etan kultur etxean. Sarrerak kultur etxean bertan eskuratu ahal izanen dira 7 euroren truke. Ohar gisa, martxoko ekitaldirako erositako sarrerek ez dute balio izanen.

Gaita eta atabala ikastaroetan izena emateko epea

Berako Udalak eta Berako Kultur Batzordeak gaita eta atabal tailerra antolatu dute. Saioak urritik ekainera bitartean izanen dira, larunbat goizetan 12:00etatik 13:00etara Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolan. Izena emateko azken eguna urriaren 15a izanen da eta 100 euro ordaindu beharko da. Ikastaro bakoitzeko guttieneko kopurua bortz lagunekoa da. Argibide eta informazio gehiago nahi duenak kultur etxera dei (948 63 12 22) edo idatz dezake (*kultura@bera.eus*).

Manttale Ttiki ez da ikasturte honetan hasiko

Momentuz, aurtengo ikasturtean Manttale mendi lasterketa taldeak ez ditu haurrentzako eskolak eskainiko. 2020-2021koa hamabigarren denboraldia izanen litzateke, baina Manttaleko kideek urtetik urtera izena emandako ume kopuruak nabarmenki goiti egin duela adierazi dute, eta, alde horretatik, Covid-19aren ondorioz bizi dugun osasun egoerarekin, antolatzaileek ez dute bideragarri ikusten eskolak segurtasunez eman ahal izatea. Ea aitzinerago hasterik baduten…

Muxkilda
Albaitari Klinika / Clínica Veterinaria
· Urgentziak 24h
· Terapia laser
· Aho osasuna (aho garbiketak)
· Kontsultak
· Ebakuntzak
· Radiografiak
· Ekografia
· Laborategiko analisiak
Plaza Eihera 15, behea B. · 20305 IRUN
T. 943 47 60 05
muxkilda@hotmail.com

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Alberto RETEGI
abokatua
✆ 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Txakurrak edukitzea arautzen duen ordenantza onartua

Ahobatez onartu zuen behin behinekoz udalak eta hilabete osoan izanen da alegazioak aurkezteko aukera

AITOR AROTZENA

Etxeko animaliekin, batez ere txakurrekin, herrian dauden arazoak ikusirik, Nafarroako Gobernuaren legedian oinarrituz, erabilera arautzea erabaki du udalak. Honela, irailaren 17an burututako udal batzarrean, behin behinekoz ahobatez onartu zuen EH Bilduk proposatutako ordenantza, etxeko animaliak, bereziki txakurrak, edukitzea arautuko duena, «animalia horiek babesteko, ongi egoteko eta arduraz edukitzeko».

Alegazioak aurkezteko aukera izanen da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik 30 egunetan. Urriaren 5eko NAOn argitaratu zela kontuan hartuz, azaroaren 4ra arteko epea izanen da horretarako. Honetaz gain, txakurrak aske uzteko leku bat prestatzen ari da udala, suhiltzaileen parkearen gibelean.

Ordenantzaren arabera, nahitaezkoa da animaliak mikrotxip homologatuaren bidez identifikatzea eta alta eta baja guztiak udaletxeko erroldan inskribatzea. Txakur guztiei eman behar zaie txertoa eta ondotik, jabeei identifikazio- eta txertaketa-txapa emanen zaie, animaliaren lepokoan jar dezaten. Modu berean, animalia bat albaitari batek bakarrek hil dezake, «indarrean dagoen legeriaren arabera justifikatutako eta baimendutako egoeretan».

Herrigunean lotuak

Udalerrian debekatua egonen da lepokorik gabeko txakurrak ibiltzea eta herrigunean, txakurrek arduradun bati lotuta ibili beharko dute nahitaez, gehienez bi metroko luzera duen uhalaren bidez. Era berean, debekatuta dago txakurren gorotzak parkeetan, lorategietan edo erabilera publikoko bertze edozein eremutan uztea. Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak arinak, larriak edo hagitz larriak daitezke eta horren arabera, isunak ere 200 eurotik 1.000 eurorainokoak (arinak), 1.001 eurotik 6.000 eurora bitartekoak (larriak) eta 100.000 euro artekoak (oso larriak) izan daitezke.

Oroimen mintegia eta informatika ikastaroa antolatu ditu San Ferminek

Zenbait ikastaro antolatu ditu San Fermin erretiratuen elkarteak ikasturte honetan. Hasteko, oroimen mintegia antolatu du urriaren 7tik aitzinera, asteazkenetan 16:00etatik 17:30era, Ramoni Ordokik gidatuta. Izen-ematea Ramoni berari deituta (661 34 56 39 telefonoa) edo jubilatuen elkartean bertan egin daiteke. Informatika ikastaroa eskainiko dute urriaren 20tik azaroaren 19ra, astelehen eta ortzegunetan, 16:30etik 18:30era. Bi maila izanen dira, hastapena eta ikastaro aurreratua.

UTZITAKOA

Izan Bidearen tontorrak gibelatuak

Izan Bidea ekimenaren barne, Sarek deituta Izura lasterka, Bianditzera bizikletan eta Kopa eta Lizarrietara oinez joateko deialdia egina zen urriaren 3rako. Baina eguraldi txarra tarteko, arkupeetan egin zuten elkarretaratzea, urriaren 24an Donostian manifestazioa eginen dutela oroitaraziz.

UTZITAKOA

Bittiriko parkea berritu du udalak

«Hagitz egoera txarrean» zegoen Bittiriko parkea berritu du udalak. Modulu guztiak aldatzeko partida bat sortua zegoen eta koronobirusagatik lanak gibelatu diren arren, dagoeneko erabilgarri dago. Parkea berritzeko lanengatik, udalak 12.189,54 euro ordaindu ditu.

Urriaren 1ean abiatu da Usategietako denboraldia

Sare bidezko uso harrapaketa tradizionala ikusteko bisita gidatuak egunean bitan izanen dira sasoi honetan

IRUNE ELIZAGOIEN

600 urte baino gehiago dituen sarezko uso harrapaketaren tradizioa bertatik bertara ikusteko aukera martxan da. Urtero bezala, urriaren 1a eta azaroaren 20a bitarteko larunbat, igande eta besta egunetan burutuko dira bisitak. Aurtengo berrikuntza nagusiena, ordutegiarena izanen da, bi bisita izanen baitira egunean, bat euskaraz, 10:00etan eta bertzea gazteleraz, 12:00etan. Covid-19aren pandemia dela eta, osasun agintarien gomendio eta betebehar guztiak betetzeaz gain, taldeak ere murritzagoak izanen dira.

Covid-19aren ondorioz, Usategietako Tradizioaren besta ospatu ez bazen ere, Sara eta Etxalarko alkateek hitzarmena berretsi zuten irailaren 27an Lizaietan, Pablo Muñoz Nafarroako Gobernuko Ingurumen zuzendari Nagusiarekin batera.

Usategietako iganderik ez

Urtero urriaren hirugarren igandean ospatzen zen Usategietako Igandeko ospakizunik ez egitea erabaki du udalak. Altxatak ere bat eginen du deialdiarekin eta ez du talo posturik jarriko Lizarietan ezta frontoiko ostatua ere.

Bi asteburutako ekitaldiekin osatu dituzte Etxalarko Kultur Egunak

Urriaren 16tik 23ra hiru ekitaldi antolatu ditu Etxalarko Euskara Batzordeak. Eskolako umeentzat Maksim magoa izanen da urriaren 16an, ortziralean 11:00etan. Biharamunean, Oihan Vegak *Euskañolitis. Zergatik praktikatzen dugu sexua euskaraz?* bakarrizketa eskainiko du kultur etxean (19:30). Urriaren 23an *Euskaraldia. Ahobizi eta belarriprest* tailerra antolatu dute kultur etxean 19:00etan.

IRUNE ELIZAGOIEN

Aitor Danboriena memorialaren finala

Urriaren 3an jokatu zen Aitor Danboriena memorialaren txapelketako finala. Olivier eta Markelek 22-16 irabazi zieten Beñat Iratzoki eta Julen Telletxeari, ia ordu eta erdiko partida gogorraren ondotik. Haritzpe okindegiak emandako txapelak eta Altxatak emandako trofeoa izan zituzten saritzat.

LAURA ELIZAGOIEN

Hegaztiak zenbatzen ari dira Lizarietan

Lizarietan abuztutik ari dira pasatzen diren hegaztien kontaketak egiten. 25 hegazti mota baino gehiago pasatu dira, gehienbat amiamoko zuria, zapelatz liztorjalea, zingira-mirotza, ubarroi handia, kaioak, gabirai arrunta eta txoloma. Irailaren hondarrerako 10.770 hegazti baino gehiago pasatuak ziren.

caser residencial
www.caseresidencial.es
Egonaldi motak
• Egonaldi iraunkorrak
• Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
• Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
• Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
• Eguneko zentroak:
• 365 egunetan irekiak
• Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
• Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak
ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Manterola Teknikoa Instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Auzoa GO!
Etxez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAn
ESKAERAK:
www.auzoago.com · T. 948 631509

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

San Migel Egunean, dantzariek bere saioa eskaini zuten. MAITE, ANA ETA ITZIAR

San Migel bestek seinalea bertzerik ez dute utzi aurten

Kankailuak atera ziren egun batean buruhandirik gabe eta dantzariek bere emanaldia eskaini zuten egun handian

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aurtengoan, gainerako herrien antzera, Igantzin ere bestarik ez dugu izan. Ekitaldi ofizialik izan ez bada ere, buruilaren 27an, igandean, kankailuak herrian barna ibili ziren; zoritxarrez ezin izan genuen buruhandiez gozatu ezin zituztelako haurrak pixontzi berarekin jo.

San Migel Egunean, berriz, dantzariek meza aitzinetik bere agerralditxoa egin zuten, karrika buelta bat eginez. Ondotik meza nagusia izan zen herriko koroak kantatua. Hauexek izan dira bestei eskainitako keinu bakarrak. Lastima, ea hurrengo urtean!

Kankailuak herrian barna ibili ziren.

Egoera berrira egokituta bada ere herriko liburutegia berriz martxan da

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Herriko liburutegia berriz martxan da, buruilaren 14az geroztik, eskolako egutegian. Astean lau egunez irekia izanen da, astelehenetik ortzegunera. Astelehen eta asteazkenetan 16:30etik 17:30era eta astearte eta ortzegunetan 17:30etik 18:30era. Mailegu zerbitzua bakarrik eskainiko da, ezin izanen da bertan egon lanak egiteko, liburuak eskatu edota itzultzeko banaka sartu beharko da. Oroitarazi nahi dute Toki-Onatik irakurtzeko bidaltzen dituzten liburuak ere eskuragarri daudela.

Euskaraldirako prestatzen ari dira herritarrak ere

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Euskaraldirako prestatzen ari gara Igantzin ere.Oroitarazi nahi dizuegu azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean ospatuko dela eta izena emateko epea ordurarte irekia egonen dela. Horretarako, *www.euskaraldia.eus* webgunea erabili behar da. Aurten, aitzineko aldian bezala, bai Ahobizi edo Belarriprest bezala parte hartzeko aukeraz gain, berrikuntza gisa, taldean parte hartzeko aukera ere izanen dugu Ariguneen bidez. Anima zaitezte eta parte hartu!

Eskolan ordutegi jarraia eta jangela zerbitzua

Eskolak ordutegia aldatu du urritik aitzinera. Jardunaldi jarraia dute Covid-19ak hala behartuta. 14:00 arte dituzte eskolako saioak eta jangelako zerbitzua erabiltzen dutenek orain ere bazkaltzeko aukera dute. 15:30 arte zainduta daude, Roxi begirale gisa dutela.

Sarek antolatutako tontorren igoera gibelatua

Sarek antolatutako Euskal Herriko 650 tontorren igoeren ekimenaren barruan Unanu mendia ere igotzekoa zen. Urriaren 3an genuen hitzordua baina eguraldi txarra zela eta, bertan behera geldittu zen eta maiatzaren 8ra gibeleratu dute.

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satelite bidezko instalazioak

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Udazkeneko kultur egitaraua prest du euskara batzordeak

Baserritarren Eguna bertan behera uztea erabaki du Ekaitza Elkarteak, baina bertze hainbat jarduera izanen dira

NEREA ALZURI

Udazkenean sarturik, hurbil dugu kulturaldia. Baserritarren Egunik ez da izanen aurten, baina euskara batzordeak hainbat jarduera antolatu ditu.

Urriaren 23an, ortziralean, herriko etxeko aretoan *Oxigenoa euskarari 6.000 metrotan ere* dokumentala ikusgai izanen da, 19:30ean. 2018an 12 euskal mendizalek eta bederatzi xerpa gaztek Himalaiara eginiko espedizioan oinarritua da.

Urriaren 24an, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairekin, *Bakean dagoena bakean utzi* umorezko bakarrizketa izanen da, 19:00etan eskolan. Eta urriaren 25ean, igandearekin, haurrentzat Maksin magoaren ikuskizuna izanen da, 17:00etan eskolan.

Urriaren 31n, berriz, 20:00etan, Dama Beltzak taldearen kontzertua izanen da Estitxu Pinatxo beratarraren eta Mikel Santxez lesakarraren eskutik.

Kultur egunak borobiltzeko, azaroaren 6an, Euskaraldiaren baitan, *ahobizi* eta *belarriprestentzako* tailerra izanen da. Aitzinetik izena eman behar da Euskara Mankomunitatean.

Herriko zerbitzuei laguntzeko erosketa bonuak atera ditu udalak

Herrian erosiz, herria bizirik lelopean, udalak herriko zerbitzuak suspertzeko erosketa bonuak atera ditu. 20 euroko erosketaren truk, bortz euroko laguntza emanen da zerbitzuetan gastatzeko eta erosketa 40 eurotik goitikoa bada, hamar euro. Hala, herriari bizia emateaz gain, lanpostuak mantendu eta tokiko ekonomia indartzen duten zerbitzuei bultzada eman nahi die udalak. Bonuak lau ostatu-jatetxeetan, bi janari-dendetan, hotelean, hiru ile-apaindegietan eta Mikel Leizaren produktuekin gastatzeko dira.

UTZITAKOA

Euskaraldiarekin bat egin dute herritarrek

Euskaraldiari babesa adierazteko argazkia atera dute herritarrek. *Ahobizi* edo *belarriprest* izan nahi dutenek *euskaraldia.eus*en eman dezakete izena. Gainerakoan, *arigune* izateko zazpi entitatek eman dute izena: udalak, Apezenea eta Dena janari-dendek, botikak, Aterpek, Pabloeneak eta Rural Kutxak.

UTZITAKOA

Izan Bidea ekimenaren bat eginez

Sare plataformak deitutako presoen aldeko aldarriarekin bat eginez, urriaren 3an hainbat herritar bildu ziren. Eguraldi txarragatik, egun horretan Euskal Herriko 650 mendi tontorretara egitekoak ziren igoerak maiatzera gibelatu dituzte; Arantzako kasuan Ekaitzara eta Mendaurrera.

Trafiko araudiaren bide-orria aitzinera doa ekarpenekin

Azken testua findu eta behin behineko onarpena eman baino lehen, foruzaingoaren oniritzia eskatuko da

MARGA ERDOZAIN

Udalak antolatutako lau bilera informatiboen ondotik, honako bide hau jarraituko du trafikoaren ordenantzak. Bileretan jasotako ekarpenak eta informazioa biltzen ari da udal taldea. Azken testua findu baino lehen Foruzaingoaren arduradunekin partekatuko dute, oniritzia jasotzeko. Hori egin ondotik, azken bilera orokorra (ez auzoka) antolatuko dute, behin betiko testua herritarrei aurkezteko. Bitartean, udal taldeak barne lana eginen du ordenantzaren ezarpena gauzatzean beharrezko diren tresnak eta baliabideak zehazteko. Behin orrazketa guztiak eginda, behin-behineko onarpena emanen zaio ordenantzari, gero argitaratuko da, dagokion epea zabalduko da alegazioak egiteko, eta hori akitzean, behin betiko onarpena eta ezarpenari ekinen diote herriko etxetik. Martxan jarri baino lehen herritarrak kontzientziatzeko eta neurri berrien berri emateko kanpaina eginen da. Ordenantzaren ibilbidearen nondik norakoa herritarrek jarraitzeko aukera izanen dute.

Osasun berriak

Bertze aldetik, iraik bukaeratik lehenagoko osasun zentro zaharrean PCR frogak burutzen ari dira. Eskualdeko biztanleok Iruñeko Refenara joan ordez, osasun etxetik medikuek beharrezkoa ikusten dutenean, bertan PCR proba egiteko aukera dugu. Gripearen kontrako kanpaina ere abiatu da. Dagokion osasun langilearekin hitzordua eskatzeko 948 456001 telefonora deitu behar da.

Solaslaguna, bertso eskola eta Euskaraldia ekimenekin euskara bizirik

Solaslaguna ekimena aurten ere martxan da. Mintzapraktika eginez (astean ordu batez), euskara maila hobetu nahi duen orok aukera ezin hobea du, astean behin kafe edo ibilalditxo baten inguruan, egiteko. Solaslagun taldeak prest daude kide berriak hartzeko. Informazioa eta apuntatzeko 610 92 06 73 telefonoan. Egitasmoan lehen aldiz parte hartu nahi dutenek ere dagoeneko aukera dute bidelagun gisa: euskaraz ongi solas egiten duten pertsonak dira, eta euskara ikasten ari direnei lagunduz parte hartzen dute. Eta bidelari gisa: euskaraz komunikatzeko oinarrizko gaitasuna dute, baina ez dute erabilerarako pausua eman.

Iker Gorosterrazuk gidatutako helduen bertso eskola ere martxan da: hitzordua ortziralero, 19:00etan, Herrigunean edo Herriko Ostatuan.

Euskaraldia

Hainbat arigune sortzen ari dira Donezteben eta Malerrekan. Heldu da aurten ere Euskaraldiaren tsunamia, erne *ahobizi* eta *belarriprest* guztiak.

Apeztegiaren senideak eta erremontistak Tafallako omenaldian. PATXI OLITE

Estebantxo Apeztegia zenari omenaldia egin diote Tafallan

MARGA ERDOZAIN

Nafarroako erremonte txapelketako finalerdiak jokatu zituzten urriko lehen aste hondarrean Tafallan. Larunbateko bi partiden artean, berriki hil den Estebantxo Apeztegia zena omendu zuten.

Doneztebarra sortzez, Tafallara ezkondu zen Apeztegia eta geroztik bertan bizitu zen, baina sorterriarekin harremana inoiz galdu gabe. Tafallako Pilotazale Peñako kidea izateaz gain, harreman estua izan zuen Doneztebeko erremontistekin, baita Erremonte Fundazioarekin ere. Familiari oroigarria eman zioten eta Aurreskua ere dantzatu zuten.

Idazketa tailerra eta literatura taldea abiatuko dira

Idazketa tailerrean (hilabetearen azken ortzegunetan, 19:00etan eta Literatura taldean (hilabetearen azken astelehenean, 19:00etan) izena emateko epea zabalik da, 948 45 09 09 zenbakira deituz. Bi tailer hauek urriaren 26 eta 29an hasiko dira.

Gaita eta atabala jotzen ikasteko eta hobetzeko ikastaroa

Gaita eta atabala jotzen ikasteko eta hobetzeko aukera izanen da. Aurten ere, udalak antolatu ditu bi ikastaro hauek. Bi tailer hauek larunbat goizetan emanen dira eta izena emateko honako telefono honetara deitu behar da: 641 58 99 08.

Irailaren 26an Unzuen egindako proban atera ziren herritarrak. UTZITAKO ARGAZKIA

Txirrindulari gaztetxoak jo eta su dabiltza

Eskoletako probetan ari dira ttikienak eta Rural Kutxak antolatutakoan Koldo Herrera eta Eneit Bertiz

MAIDER PETRIRENA

Irailaren 26an BTT eskoletako proba Unzuen izan zen eta argazkiko taldea bertan izan zen: ezkerretik eskuinera, Ander Apeztegia Martinez, Ander Larraburu Hernandorena, Unax Larraburu Hernandorena, Oihan Apeztegia Martinez, Markel Agesta Hernandorena eta Aimar Agesta Hernandorena.

Urriaren 3an, Lukinen parte hartu zuten Ander eta Oihan Apeztegia Martinez, Unax eta Ander Larraburu Hernandorena eta Mikel Bastante Rodriguezek.

Irailaren 27an, berriz, Rural Kutxak urtero antolatzen dituen karreren bukaera izan zen Arazurin. Zirkuitua aldatuagatik, Koldo Herrera Urroz fuerte ibili zen eta bigarren postuan akitzea lortu zuen. Sailkapen nagusian ere bigarren postuan akitu zuen. Urriaren 4an Lukinen karrera izan zuen eta sailkapenean hirugarren egin zuen. Eneit Bertiz Apezetxea herritar gazteak ere parte hartu zuen. Oraingoan bizikleta gainean baino gehiago lasterka egitea tokatu zitzaien ibilbidean izan zuten lohiarengatik.

ESKOLAK UTZITAKOA

Sei neska-mutiko lehen aldiz eskolan

2020-2021 ikasturtea irailaren 4an hasi zuten. Eskolan lehen aldiz sei neska-mutiko hasi dira: Uxuri Arretxea Ibarra eta Naila Korta Gartzia (zutik). Jarrita berriz, ezkerretik eskuinera Ainhoa Espelosin Garcia, Iraia Sarratea Arretxea, Ugutz Alzuri Loiarte eta Eñaut Errandonea Etxart.

UTZITAKOA

Eneko Herrera Aiarako mendi duatloian

Eneko Herrera Urrozek ere kirolean murgilduta segitzen du, han eta hemen. Urriaren 4an Aiarako mendi duatloian parte hartu eta gainera, lohi tartean, gozatu zuen. Bertan sei kilometro lasterka, hamabortz kilometro bizikletaz eta berriz ere 1,5 kilometro lasterka egin zituen.

Berriz ere pediatra kontratatzeko eskatu dute gurasoek

Abuztuaz geroztik pediatrarik gabe daudela salatu dute Bertizarana eta Malerrekako gurasoek

TTIPI-TTAPA

Arazoa ez da oraingoa, Malerrekako eta Bertizaranako gurasoek behin eta berriz eskatu izan baitute pediatra. Gobernuak, ordea, pediatrarik ez dagoela erantzuten omen die. Baina gurasoen hitzetan, «Osasunbideak bere web orrialdean erakusten duen moduan, libre dauden pediatrak egon badaude». Horregatik, «lehenbailehen» arazoari konponbidea emateko eskatu dute.

Eskaera Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten 15 herrietako familia ugarien izenean egin dute. Abuztuaz geroztik pediatrarik gabe omen daude eta, «umeen lehendabiziko balorazioa erizainak berak egiten duela» jakinarazi dute: «alde batetik, bere esku gelditzen da diagnostikoa egitea edota tratamendua abian jartzea, eta bertzetik egoerak hala eskatzen badu familia medikuei kasua bideratzea, beraien lan-ordutegiaren eta lehendik dituen hitzorduen arabera gure umeak artatzeko tartea eskainiz». Lehenago ere egoera berean egon direla oroitarazi dute gurasoek: «2018an bortz hilabete eman genituen pediatrarik gabe eta 2019-2020an hiru hilabete».

Bortzirietako pediatra astean lau orduz

Astean behin, «lau orduz gehienez» Lesakako Osasun Zentroko pediatra azterketak egitera joaten dela azaldu dute. Baina ez da nahikoa gurasoen irudiko: «Doneztebeko Osasun Zentroari pediatra bat jardunaldi osoan dagokio, horregatik lau orduko zerbitzu hori behar guztiak asetzeko eskas gelditzen da».

«Pediatrak egon badaude»

Behin eta berriz eskatu dute jardunaldi osoan lanean aritzeko ordezko pediatra Malerreka eta Bertizaranako gurasoek eta ez dute begi onez ikusten administrazioaren aldetik jasotzen duten erantzuna. «Pediatrarik ez dagoela erantzuten digute», baina pediatrak badaudela azpimarratu dute: «Osasunbideak bere web orrialdean erakusten duen moduan, libre dauden pediatrak egon badaude».

Egoera ikusita eta Malerrekako lanpostuak hutsik segitzen duela ikusita, galdera hauxe luzatu dute gurasoek: «lanpostua landa eremuan kokatzeak baldintzatzen ote du ordezkapena ukatzea?». Horren harira proposamena ere egin dute: «zergatik ez dituzte ordezkaritza horiek hartzen dituzten profesionalak modu batean edo bertzean saritzen?; urtebeteko esperientzia urte bat eta erdi gisa kontatuz edota beraien lanorduak etxetik ateratzen direnetik kontatzen hasita, errate baterako».

«Lehenbailehen pediatra»

Hala, alde batetik, «bizi dugun egoeraren larritasuna eta negu korapilatsu bat hurbiltzen ari zaigula» ikusita, eta bertze aldetik, «gure seme-alaben osasuna jokoan dagoela» iritzita, «lehenbailehen pediatra baten kontratazioa» galdegin dute Malerreka eta Bertizaranako gurasoek.

20 'arigune' izanen dira Euskaraldiaren edizio honetan

Malerreka eta Bertizaranako 20 entitatek eman dute izena azaroaren 20tik abenduaren 4ra eginen den Euskaraldiaren bigarren edizioan *arigune* izateko. Hala, modu kolektiboan eginen dute herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea helburu duen ariketa. Horien artean daude Doneztebeko, Eratsungo, Ezkurrako, Saldiasko, Sunbillako eta Bertizaranako udalak. *Ahobizi* edo *belarriprest* rolak hartu nahi dutenek, berriz, izen-ematea oraindik zabalik dute: *euskaraldia.eus*.

Ipuin kontaketa urriaren 23an Zubietan

Ameli eta Xirrikituen jostunekin *Isiltzen joan zirenak* ipuin kontaketaz gozatzeko aukera izanen da urriaren 23an, ostirala, Zubietan. Estalpean 19:00etan egina dute hitzordua eta Zubietako Udaletik adierazi dutenez, edukiera kontrolatua izanen da eta segurtasun neurriak beteko dituzte.

Bestalde, Zubietan mugimendua sumatzen hasia den seinale, yoga ikastaroa ere martxan da. Joan den urriaren 5ean egin zuten lehenbiziko saioa.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Legasan eta Zubietan presoen alde

Eskualdeko bertze hainbat herritan bezala, Zubietan (goiko irudia) eta Legasan (beheko irudia) ere Sare Herritarra plataformak deitutako presoen aldeko hitzorduarekin bat egin zuten urriaren 3an. Izan Bidea ekimenaren bat eginez, herriko plazan bildu ziren zubietarrak eta legasarrak.

Joan den urtean baino bisitari gehiago ibili da Leurtzan

Ekain hondarretik irailaren 7a bitarte 29.525 bisitari izan dira urtegien inguruan

JAIONE ARIZTEGI

Oraindik denboraldia akitu ez bada ere, aurtengo Leurtzako denboraldiko balorazioa egin dute. Covid-19a dela eta, aldaketak egin dira denboraldia hasi zenetik. Bertzeak bertze, iturria itxi behar izan dute, mahaiak hartzeko txartela erosi behar izan da desinfekzio lanak egin ahal izateko, ibilbideak noranzko bakarrean egin ahal izan dira eta 400 pertsonako edukiera mugatu dute.

Edukierari dagokionez, ederki nabaritu da beroa egin duen egunetan. Izan ere, eguerdirako gehienetan, langile bat herrira jaitsi eta ordu horretatik aurrera etorritako autoak bidaltzen ibili behar izan dute.

Kontuak kontu, balorazioa positiboa izan dela erran daiteke, irailaren 7a bitarteko datuak kontuan hartuz, 29.525 bisitari izan baitira, joan den urtean denboraldi osoan bezalaxe. Horri gehitu behar zaio, aurten, bertze urteetan ez bezala, denboraldia berandu hasi dela, hau da, martxoan izan beharrean, ekain hondarrean. Hala ere, beti bezala akituko da, eta beraz, urri hondarrean emanen zaio bukaera aurtengo denboraldiari, eta hortik aurrera, sarrera librea izanen da.

Jende aunitz ibili da Leurtzan.

Gazteluko Legarrea leizea Memoria Historikoaren Leku izendatu dute

TTIPI-TTAPA

Gazteluko Legarrea leizea Nafarroako Memoria Historikoaren Leku izendatzea erabaki du Nafarroako Gobernuak. Memoria Historikoaren Komisio Teknikoak egin duen aldeko txostena aintzat hartuta onartu dute erabakia. Hain zuzen, «transmisioan, elkarbizitzan eta bakean ekarpena egiteko» helburuarekin.

1936ko kolpe militarraren ondotik, Legarreko leizera bota zituzten Juana Josefa Goñi Sagardia eta haren zazpi seme-alabetatik seiren gorpuak. Lortutako akordioan Legarrean gertaturikoa «krimena eta hilketa» izan zirela bildu du Nafarroako Gobernuak, eta gehiago ere bai; «erantzule garbirik» ez dagoela ondorioztatu dute, 1936ko kolpe militarrak ezarritako «inpunitate giroagatik».

Gorpuzkiak 2016an atera zituzten Legarreko hobitik. Pako Etxeberria forentseak gidatu zituen Aranzadik egindako lanak eta 50 metroko sakoneran topatu zituzten hezurdura zatiak: lehenbiziko umeen hezurdurak eta gero amarenak.

2017an lurperatu zituzten hezurdurak.

Ama eta sei seme-alaba

Juana Josefa Goñi eta bere sei seme-alaba bota zituzten Legarreko leizera. Pedro Antonio Sagardia senarra eta 18 urteko semea bakarrik libratu ziren heriotzaz. Aita Eugin ari zen lanean eta emaztearen oharra jaso zuen herritarrek Gaztelutik bota nahi zutela erranez; itzuli orduko, aldiz, Guardia Zibilak aita atxilotu eta, libre utzi zutenerako, familia desagertua zen.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

Gripearen aurkako txertoa Ezkurran

Joan den urriaren 5eko goizean gripearen aurkako txertoa jartzen aritu ziren Ezkurrako frontoian. Kanpaina 60 urtetik gorako eta arrisku taldean sartuta dauden herritarrei bideratua da eta Ezkurrako kasuan ere herritar horiek hartu zuten txertoa.

UTZITAKOA

Aroztegiko proiektua hizpide

Malerreka, Baztan eta Bortzirietako 20 bat lagun elkartu ziren Aroztegiko proiektuari buruz solas egiteko urriaren 2an Doneztebeko zineman egin zen solasaldian. Proiektuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, ondorioez ere aritu ziren. Iragarri dutenez, herriz herri hitzaldiak emateko asmoa dute.

ARKUPEAK

Iaz 56 mendizale bildu ziren irteeran.

Aizkolegira mendi irteera eginen dute urriaren 20an

Aparkalekutik abiatu eta karobian eta ikaztegietan barrena Aizkolegiko kaskora joateko asmoa dute

TTIPI-TTAPA

Urriaren hirugarren astearteko mendi-txangoa Bertiz ingurutik abiatzea ohitura bihurtzen ari da.

Joan den urtean, 54 ibiltari elkartu ziren Suspiroko bidaxkan barrena, Iturburutik itzulia eginez. Aurten ere, hurrengo hitzordua bertan dute, urriaren 20rako, heldu den astearterako. Aparkalekuan elkartuko dira eta hortik, karobian eta ikaztegian barrena, Plazazelaiko pista hartuz, Aizkolegiko kasko politera igotzeko asmoa azaldu dute.

Ea eguraldia lagun duten, ezinbertzeko laguntzailea izaten baita nonahi ere.

Eguberrietako loteria txartelak salgai

Elkarteak dagoeneko prest ditu abenduaren 22an egin ohi den Eguberrietako zozketarako loteria txartelak. Aitzineko zenbakian jakinarazi bezala, txartel bakoitzak bi zenbaki ditu: 76.243 eta 92.907.

Lerro hauen bidez, elkarteak gabe ez gelditzeko, lehenbailen mugitzeko deia egin du. Erosi nahi dituztenek herri bakoitzeko ordezkarien eskuetan dituztela jakinarazi nahi izan du. Bakarren batek jasotzerik izan ez badu, Donetzebeko bulegoan har ditzakeela ere argitu du.

Elkarteko mugikor zenbakia denen eskura

Ez ditugu sekula santan izan, gaur egun elkarren berri izateko ditugun erraztasunak. Ez da lehenbiziko aldia, Arkupeak elkarteak Donetzebeko bulegoaren eta kide guztien artean, komunikazioa ahalik eta zuzenena eta azkarrena izateko desioa adierazi duela. Bulegoko telefono mugikorraren zenbakia (618 56 78 37) zuen sega-potoko kontaktuetan sartzea da bete beharreko bakarra. Elkarteak, biziki estimatzen ditu, bazkide bakoitzak, guztion onurarako, egin ditzakeen ahaleginak.

GUTUNA

PABLO IRASTORTZA ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN

Zapi hilabete Covid-19arekin

Kaixo Arkupeak jubilatu elkarteko lagun guztiei. Denak osasuntsu? Hala desio denontzat. Bigarren aldia da pandemia maltzur hau gure artera etorri denez geroztik, lerro hauen bidez agurtzen zaituztedala. Lehenbizikoa apirilean izan zen, eta hilabete bat bertzerik ez zen pasatua, martxoaren 15etik, ezezaguna gertatuko zitzaigun bizimodua hasi zenez geroztik. 'Etxean gelditu zaitez' izan zen, xomorro ergel hau uxatzeko eman ziguten mezu inportanteena, eta oraingoz gaitz erdi, konponbide honekin osasuna gure alde badago. Luze samarra egin zitzaigun boladaren ondotik, hasi ginen kalera ateratzen, gaitz erdi! Hori bai, ezin bi metroko distantzia mantendu gabe hurbildu, gutxiago besarkada txatxu bat eman ezta bilobari ere!, ia ezin ostatura joan, betiko lagunekin basoerdi bat hartzera, janari dendan, *kieto* atean! Polizia gisan, muturrekoakin txakur arriskutsuen antzera, kalean gurutzatzerakoan, bizilaguna ezagutzeko nahiko komeriarekin, elkarren artean kristoren diru-zorrak izanen bagenitu bezala. Esaerak dionez *Jainkoak bai estutu, baino ez ito*, honetara ere ohitu garela erran behar, eta nahiz eta eragozpen hauek pixka bat estutu, ez dezatela gure egunerokoa zeharo ito, honetatik ere aterako gara eta. Aurten arteko normaltasunean, aste, hilabete eta urteak ziztu batean pasatzen zitzaizkigun, gero eta azkarrago gainera. Badirudi, martxoko egun haietatik aitzinera, etxeko giltzapean geldiarazi gintuztenez geroztik, gure egunerokoak, bertze abiadura eta norabide bat daramala. Hala, data horiek arte, zorioneko osasuna, astia, lagunak (eta sakelako sosen laguntzekin) noiznahi, hara eta hona mugitzeko aukera genuen. Urrun edo hurbil opor egun batzuk, hango edo hemengo bestak, erakusketak, feriak, bazkari eta afari goxoak, nahi bezala bizitzeko aukerekin genbiltzan. Erran daiteke, 'zuhurtzia', 'beldurra', 'zenbat', 'noiz', 'nola', 'nork', 'noizko' hitzak eta gogoetak direla, gaur gure eta ingurukoen etorkizuna neurtzeko eralbilgarri bihurtu direnak. Adibidez, nork sinetsarazi behar zigun -daukagun adinarekin!- buruan kezka gehien, edo ia gehien, sorraraziko zigun hitz bedeinkatua 'txertoa' izanen zela. Ea noizbait ohitura zaharretara itzultzeko menturan aurkitzen garen, ez dezagun baikortasuna eta itxaropena galdu. Animoak denei, zaindu gogotik eta gora bihotzak! Agur berezia, edozein gaixotasun dela eta, sendikoren bat galdu duten familiei, animoak baita kutsatuta edo gaixorik egon direnei edo daudenei ere, zeuek zaintzeaz arduratzen diren hainbat ahaide, lagun, bizilagun eta ingurukoei, eta nola ez, eskerrak milaka, gure osasuna zaintzeko buru-belarri etengabeko lan ordainezina burutzen duten ezinbertzeko osasun langile talde guztiari. Zuek etxerako!

«EGUNEROKOAK BERTZE ABIADURA ETA NORABIDE BAT DARAMALA DIRUDI»

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus

EUSKARALDIA

euskaltzaleen topagunea

Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernua

LABek deituta, elkarretaratzea egin zuten irailaren 29an Iruñean.

Amiantoak eraginda heriotza onartu du enpresa batek

Laminaciones de Lesaka enpresaren ondorengo batek Teo Vilaren familiari kalte-ordaina emanen dio

TTIPI-TTAPA

Irailaren 29an epaiketa bat egitekoa zen Iruñeko Justizia Jauregian, Laminaciones de Lesakako langile bat amiantoagatik hil zela eta, heriotzaren kalte-ordainaren eskaerari buruz. Hala ere, bista egin baino lehen, akordioa lortu zen: Laminacionesen ondorengo enpresetako batek onartu du eginiko kaltea eta familiak eskaturiko diru kopurua emanen du kalte-ordainetan. LAB sindikatuak ontzat jo du akordioa, baina Arcelor Mittalek, amiantoak eragindako kalteak zuzentzeko beharrezko neurriak har ditzan eskatu zuen elkarretaratze batean.

Teo Vila, Laminaciones de Lesaka lantegian 30 urtez aritu langilea, 2016ko otsailean hil zen amiantoaren eraginpean lan egiteak eragindako patologia baten ondorioz. Hil baino hilabete gutxi batzuk lehenago diagnostikatu zioten gaixotasuna. Bat-bateko heriotzaren ondoren, familiak, LAB sindikatuarekin eta Zuzenki bulegoarekin batera, borroka legal bat hasi zuen, haren heriotza gaixotasun profesionalaren ondoriozkotzat har zedin.

Urteetan amiantoa lantegian erabili zen arren, eta hori jakina zen arren, ez Laminaciones de Lesaka, ez eta horren ondorengo enpresetako bat ere, ez zegoen inskribatuta amianto-arriskua duten enpresen erregistro ofizialean.

LAB sindikatutik, aipatutakoaren arabera, «espero dugu eta eskatzen dugu Teoren heriotzak balio izatea berriz ere gogorarazteko Lesakako Laminacionesen ehunka langile amiantoarekin harreman estuan eta zuzenean egon zirela aunitz urteez, eta eskatzeko Laminacionesen gaur egungo oinordekoak, Arcelor Mittalek, behar diren neurriak har ditzala».

Bizikletak konpontzeko eta mantentzeko dirulaguntzak

TTIPI-TTAPA

Bizikletak konpontzeko eta mantentzeko Nafarroako Gobernuak bultzatu duen dirulaguntzen kanpainan parte hartu nahi duten pertsonek erreserbak izapidetu ahal izanen dituzte urriaren 6tik azaroaren 15era, programari atxikitako 32 tailerretako edozeinetan.

Interesa dutenek atxikitako tailerretako batera joan eta konponketa- edo mantentze--zerbitzu bat eskatu beharko dute, bizikletak konpontzeko, doitzeko edota segurtasun--elementuak gehitzeko eskatuz. Diru laguntza Nafarroan bizi diren 14 urtetik gorako pertsonentzat dira, eta gehienez 50 euro jasoko dituzte. Eskualdean, tailer bakarrak eskainiko du zerbitzu hau, Elizondoko Zirrike tailerrak.

Dirulaguntza-programari buruzko informazio guztia *https://www.navarra.es/eu/web/reactivatubici* webgunean dago.

Baztan-Bidasoko XXVII. Ehizari buruzko Jardunaldi Gastronomikoak prest

TTIPI-TTAPA

Urriaren 16tik azaroaren 30era abian dira Baztan-Bidasoko XXVIII. Ehiza Jardunaldi Gastronomikoak. Aurtengoa 28. edizioa izanen da, 28 urte bete dira, beraz, ehiza eta gastronomia uztartzen.

Aurtengoan bederatzi jatetxek parte hartuko dute: Arantzako Aterpe (Arantza); Burlada jatetxea (Arantza); Jolastoki Taberna (Irrisarri Land, Igantzi); Etxalarko Herriko Ostatua (Etxalar); Donamariako Benta (Donamaria); Ordoki Erretegia (Arizkun); Elbeteko Posada (Elbete); Olari jatetxea (Irurita) eta Urgain jatetxea (Oronoz Mugairi).

Aurten eutsi egin zaio *Ehizatu pintxoa* ekimenari eta hainbat jatetxetan ehiza pintxoa dastatzeko aukera izanen da. Pintxoa eta Inurrieta ardoa lau eurotan.

#comecaza argazki lehiaketa

Ehiza Jardunaldietako VI. Argazki Lehiaketa ere martxan jarriko da urriaren 16tik azaroaren 8ra eta irabazlearen izena azaroaren 10ean, *www.baztan-bidasoa.com* webgunean, Facebook eta Twitter bidez jakinaraziko da.

Saria: bi pertsonendako otordua 2020ko Ehiza Jardunaldi Gastronomikoen baitan gozatzeko eta datorren edizioko kartelaren eta eskuorrien irudia izatea. Maximo Martinez Gorritik ateratako argazkia da aurtengo sariduna.

Maximo Martinez Gorritiren argazki honek irabazi zuen iazko lehiaketa.

SANTU GUZTIEN EGUNA

Azaroak 1

Ixabel Errandonea Alzuguren

«Horma egin arren, irauten duten loreak dira nagusi»

Ixabel Errandonea Alzuguren lorez inguratuta bizi da. Duela 30 urtetatik Lesakako Beko loreak eta landareaken topatuko dugu irribarretsu. Lore eta landareak ezagutzen dituen bezala, ezagutzen dute eurek ere Ixabel. Azaroak lehen pausoa ematearekin bat, kolorez janzten dira eskualdeko hilerriak. Etxekoen hilarriak apaintzeaz gain, joandako bertze lagun eta ezagunen hilerriak ere bisitatzeko aprobetxatzen da kanposanturako bisita. Santu Guztien Eguna hurbildu ahala lana handitzen joaten da Bekoko negutegian. «Urrian hasten gara enkarguak hartzen azaroaren 1erako dena prest izateko». Hala ere, bada azken momenturako dena uzten duen jendea ere «geroz eta gehiago» direla dio Errandoneak.

Domu Santu Eguna jendearentzat «berezia» dela adierazi digu beratarrak. Egun seinalatua hildakoak oroitzeko eta ohitura da hilerria egun honetarako apaintzea. «Baina jendeak ez ditu joandakoak ahanzteko», urte osoan loreak paratzen dituztenak geroz eta gehiago dira. Azaroaren 1era arte esperatu gabe aste horretan bertan hilerriko itzulia egiten duenik bada, egun seinalaturako «dena garbitu eta txukun izateko».

Loreetan ere moda kontuak izaten dira, baina jendeak «irauten dutenak» paratu nahi izaten dituela argitu digu. «Lehen urrelili edo krisantemoak ziren gehien paratzen zirenak, hilerrietan nagusi izaten zen». Orain «hagitz gutti» omen dira hautu hori egiten dutenak «beti da baten bat, baina guttiengoa da». Krisantemoak edo urreliliak hilabete irauten baitute, «ez dira gure klimarako eta kanpoan edukitzeko lorerik egokienak». Horregatik, «gure bezeroak udazken eta neguak aguantatzen dituzten landareen bila etortzen dira». Neguko loreak gehienbat, «horma egin arren irraunen dutenak». Ahalik eta landare indartsuenaren bila joaten dira egun hauetan Bekora hurbiltzen direnak. Garai honetarako egokienak eta gehien irauten dutenak izaten dira «ziklamenak, azaleak, pentsamenduak...». Lore horiei laguntzeko eta kolore berdea emateko alboan zuhaixka bat dutenak dira «jendeak gehien eramaten dituen zentroak».

Bekora joaten diren bezeroak urteetako bezeroak dira eta konfidantza osoa izaten dute Errandonearen aholkuetan. Bertaratzen direnei «aholkuren bat» ematen omen die, baina era berean «ideia finkoak» dituzten bezeroak daude, «argi dute ze lore paratu» eta erraza da euren nahietara egokitzea. Landareek eta loreek ere badituzte euren mantentze-lanak eta horien nondik norakoak ere ematen dituzte Bekon. «Nahiz eta gehienek badakiten nolako zaintza-lanak behar dituzten, gogoraraztea ez da gaizki etortzen». Aunitz dira hildako familiartekoaren edo lagunaren gustuak errespetatzen dituztenak, «gehienbat kolorea bereizterako orduan». Edozein kolore ere eramaten dute baina, adibidez, «lore horidunik ez, ez zitzaiolako horia batere gustatzen». Edo alderantziz ere gertatzen omen da, «kolore maiteena horia izan eta beti lore horidun landareak jartzea».

Santu Guztien Egunean oro har hilerrirako joera izaten du jendeak. Baina mendietan familiartekoen eta lagunen errautsak dituztenak ere oroitzen dira. Zuhaitzak edo zuhaixkak landatzen dituztenez ez dute egun honetan lorerik paratzeko ohiturarik, «ohikoa ez izan arren, bada lore sortaren baten bila etortzen denik».

AUKERA HANDIA

kalitatezko produktuetan

Domisaindu egunerako
Lorcetan eskaintza zabala

- Ongarriak eta ongarritzeko gaiak
- Landareak, loreak, fruitu-arbolak
- Lore-konposizioak
- Etxe barrurako zein kanpoko landare eta arbolak
- Dekorazio osagarriak, loreontziak eta jardinerak
- Lorategirako erremintak

Landiflor

Landiflor zure loredenda egunero irekia:
9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

VENTA PEIO®
Zure erosketa gunerik hoberenak Euskal Herriko bihotzean

Dantxarinea Ibardin Valcarlos Behobia
www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)

Mahai bueltarako gozagarri den eguna

Hilerrira edo hildako senideen errautsak dauden tokira egin beharreko bisita aitzakia ona izaten da familiarekin elkartzeko. Ospakizun hauek mokadu goxoekin ospatzea ez da ohitura berria, aspalditik datorren kontua baizik. Santu Guztien Egunak baditu ospakizun honekin zuzenean lotuta dauden gozoak. Santu-hezur edo haize kruxpetak, hain zuzen ere. Zenbait gozotegitan urte osoan zehar eskaintzen dituzten arren, batez ere, egun hauen bueltan erosten dira. Eskualdeko gozotegietan eskaintza zabala izaten da aho guztien gozagarri: krema, txokolate edo esne-gainez betetako haize-kruxpetak; marmelada, txokolate edo aingeru-adatsez betetako santu-hezurrak... Joandakoak oroitzeko egun aproposa, baina gure sabela gozatzekoa ere bai!

Sentimenduak dituzten harriak

Loradenda eta gozotegiez gain, bada azaroaren 1erako lana sortzen zaionik ere. Hargintza enpresak nabaritzen dute lanaren gorakada. Izan ere, Santu Guztien Egunerako familiek maite dituzten senide eta lagunen hilobiak konpondu eta apaindu nahi izaten dituzte. Udazkenean hilerrietako oroitarriak edo eskulturak egiteko eta moldatzeko edota mantentze-lanetarako eskariak areagotzen zaizkie.

Gurean ohikoena harri naturala erabiltzea izan da: Baztango harri gorria, Duco harria, Pitillas harria, Debako harri beltza... Gaur egun, hormigoi inprimatuarekin egindako oroigarriak ere ugaritu dira, batetik, prezioz harri naturala baino aunitzez merkeagoa delako eta bertzetik, ez duelako mantentze-lan berezirik behar. Materiala dena delakoa ere, oraindik gurutzeak edo hilarriak dira egun horretarako gehien egiten dituztenak eta herri bakoitzeko arauak kontuan hartuz betiere. Pieza bakoitza bakarra izaten da eta harri zati bakoitzak milaka sentimendu ditu.

60 bat lagun bildu ziren Goizuetako udaletxeko ganbarako saioan. NBE

Berako Lamixene taldekoak kantari Jaunsaratseko finalaurrekoan. NBE

Bardoak ekimeneko finala larunbatean izanen da Lizarran

Leitzako Atekaberts, Malerreka-Baztango Bertsonautak eta Berako Lamixene taldeak sailkatu dira

TTIPI-TTAPA

Pandemiak eragindako zazpi hilabeteetako etenaren ondotik, urriaren 3an jokatu ziren jokatzeke gelditzen ziren Bardoetako bi finalaurrekoak, Goizuetan eta Jauntsaratsen. Behin bi saio horiek eginda, argitu da urriaren 17an, Lizarran, finalean ariko diren taldeen zerrenda: Leitzako Atekaberts komeni taldeari –lehendik sailkatua– Malerreka-Baztango Bertsonautak eta Berako Lamixene taldeak gehitu zaizkie.

Goizuetan, udaletxeko ganbaran jokatu zuten finalaurrekoetako bat. Parean izan ziren Lesakako Arranopola (Eneko Fernandez, Erika Lagoma, Etxahun Azkarraga eta Josu Sanjurjo) eta Malerrekako Bertsonautak (Alazne Untxalo, Egoitz Gorosterrazu eta Iker Gorosterrazu), Estitxu Arozena gai-jartzailearen aginduetara kantuan. Joaneko saioan, otsailean Anizen jokatutakoan, garaipena eskuratu zuten Bertsonautak taldekoek, eta beste horrenbeste egin zuten Goizuetan, finalerako sailkapena ziurtatuz.

Jauntsaratsen (Basaburuan) izan zen beste finalaurrekoa, Berako Lamixene (Aitor Elexpuru, Julen Zelaieta eta Patxi Castillo) eta Barañaingo Hego Haizea taldeen artean. Gai-jartzaile lanetan Ainhoa Larretxea aritu zen. Beratarrek irabazia zuten joaneko saioa, martxoan Tafallan, eta bigarrenean ere nagusitu ziren, finalerako txartela berretsiz.

Finala urriaren 17an

Horrenbestez, argitu da urriaren 17ko finalean ariko diren taldeen zerrenda: Leitzako Atekaberts komeni taldearekin batera, Malerreka-Baztango Bertsonautak eta Berako Lamixene taldeak. Lizarrako Ikastolan eginen da finala, segurtasun eta osasun prebentziorako neurri guztiak bermatuta. Larunbatean 17:00etan hasiko da. Sarrerak salgai daude honezkero, *www.bertsosarrerak.eus* atarian online, eta fisikoki, Lizarra Ikastolan bertan.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa gibelatzea erabaki dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsolari Txapelketa ez da zegokion datetan jokatuko. Hala erabaki du Nafarroako Bertsozale Elkarteak, bere oinarriak kontsultatu eta egoera aztertu ondotik. Covid-19ak egitasmoaren berezitasunak bermatzea zailtzen dute, eta bereziki jartzen dute ezbaian txapelketaren oinarrizko irizpidea den aukera berdintasuna. Bertzeak bertze, honako egoerak sor daitezke: bertsolariak konfinatu behar izatea, eta ondorioz txapelketan parte hartzeko aukera galtzea; saiotik saiora epaimahai bera bermatzeko zailtasunak izatea; saio batetik bertzerako aldaketak saioaren beraren aforo eta ezaugarrietan… Gauzak horrela, txapelketa urtarriletik martxorako epean ez egitea erabaki du elkarte antolatzaileak. Pandemiaren bilakaeraren arabera erabakiko dute data.

Dena dela, kultura segurua dela azpimarratu nahi du Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Txapelketaren berezitasunak bermatzea zaila da egungo egoeran, baina aukera badago bertze saioak antolatzeko. Osasuna bermatu eta bertso saioak antolatzea ez dira bi gauza kontrajarri. Zentzu horretan, txapelketaren hutsunea Nafarroako bertso plaza sustatzeko baliatuko du NBEk, aitzinerago zehaztuko diren egitasmoen bidez.

2019ko finaleko irudia. Oraingoz ez da halakorik izanen 2021eko neguan.

GOIZUETA

Ibiltariek Artikutzako paisaiaren edertasunaz gozatuko dute.

Artikutzan bisita gidatuak urriaren 18an eta 25ean

Urriaren 4an egin zen lehenbizikoaren ondotik, datozen bi igandetan izanen dira irteerak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 4ko bisita-gidatuaren ondotik, ondoko bi asteburuetan Artikutza ezagutzeko beste bi hitzordu izanen dituzte herritar zein bisitariek.

Urriaren 18an Arriurdiñetan dute hitzordua eta Artikutza hegoaldeko sarreratik abiatuz, Artikutzako basoan barrena ibili bitartean, bisitariek bertako industrializazioa ezagutzen ahalko dute: burdinola zaharrenak, trenaren aztarnak, minak, harrobiak... Ingurune naturalaren garrantzia bertatik bertara ezagutu eta ezagutzak aberasteko modua izanen dute. Ondoko igandean, hilaren 25ean, ibilbidea luzeagoa izanen da. Beltzuntzaraino igoko dira eta bidean pagadi ederretan, hariztietan eta landaketetan barrena ibiliko dira.

Izen-ematea Donostiako Udalaren webgunearen bidez edo 679 61 30 16 telefonora deituz edo Whatsappa idatziz egin daiteke. Antolatzaileek, irteeretan Covid-19aren kutsatzea saihesteko segurtasun neurri guztiak beteko dituztela gaineratu dute eta, besteak beste, irteeran maskara jantzita izatea beharrezkoa izanen da.

Lubineko frontoia irekita egonen da hemendik aurrera

Hemendik aurrera Lubineko frontoia irekita egonen da erabili nahi duen guztiarentzako. Pilota eskolak lehentasuna izanen badu ere, nahi duenak nahi duenean erabili ahal izanen du pilotalekua, txandarik edo giltzarik eskatu beharrik gabe.

Emakume tailerrak antolatu dituzte urriaren 17 eta 31n

Emakume tailerrak antolatu dituzte urriaren 17 eta 31n, larunbatetan 10:00etatik 14:00etara udaletxeko ganbaran. Izena emateko idatzi *goizutakoemakumeak@gmail.com* helbide elektronikora edo deitu 674 08 69 26 telefono zenbakira.

Ez Feri Egunik ezta Umore Ona elkartearen ospakizunik ere

TTIPI-TTAPA

Koronabirusak eragindako egoera tarteko, feri batzordeko kideek azaroan egin ohi duten Feri Eguna bertan behera uztea erabaki dute.

Horrez gain, Umore Ona elkarteko zuzendaritza batzordeak, irailaren 14an egindako bileran, jarduerarik ez egitea erabaki zuen. Hortaz, jubilatuen eguna, atalen-eguna eta bazkideen bazkaria ez dituzte izanen.

Egoerak ospakizun horiek aurrera eramatea ahalbidetzen duenean berrartuko dituzte ekitaldiak.

SARE NAFARROA

Presoen aldeko hitzordua

Eskualdeko hainbat herritan bezala, Goizuetan ere Sare Herritarra plataformak egindako deialdiarekin bat egin zuten urriaren 3an. Mendian egitekoa zuten hitzorduari herritik egin zioten keinu, eta argi adierazi zuten: *Goizuetan ere bidean gaude!*

IGARATZA APEZETXEA

Arzallusen 'Miñan' liburua hizpide

Amets Arzallusek Ibrahima Balderen istorioa ardatz duen *Miñan* eleberria aurkeztu zuen irailaren 25ean Goizuetan. Baldek Afrikatik Europara anaia txikiaren bila egindako ibilbidea ardatz duen lanaren nondik norakoak azalduz, idazleak goizuetarren arreta bereganatu zuen.

Kamera ilunean oinarritutako proiektua garatzen

Herritarrek, Nader Koochaki artistarekin batera, landu duten proiektua urri bukaeran edo azaroan egina egotea espero dute

Irailaren 27an aurkeztu zuten kamera ilunaren prototipoa.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak landa-inguruneanartea eta kultura sustatzeko antolatu ohi duen Landarte 2020 proiektuan parte hartzeko aukeratua izan zen Arano. Hortaz, Beire, Bidankoze, Lizoainibar/Arriasgoiti, Mendaza/Berrotzako Arana eta Sadarreko herritarrak bezala, programan murgilduta dabiltza aranoarrak.

Sorkuntza garaikideko proiektu bat garatzen ari dira, artista batekin elkarlanean, eta epe ertainean garatuko da. Horren bidez, aranoarrek herriko ondareari balioa eman eta tokiko nortasuna indartu nahi dute.

Aurkezpena eta bisita

Uztailean, herritarrekin bilera irekia eginez eta proiektua aurkeztuz, hasi zuten bidea eta horren ondotik, hilabete bukaeran, bi dinamizatzaileren, Anne Ibañezen eta Marc Badalen, bisita izan zuten herrian. Herria eta inguruko mendiak bisitatu zituzten eta, herritarrei (baserritarrei, haurrei...) galderak egiten aritu ziren.

Nader Koochaki

Aranoren ezaugarriak eta beharrak aztertu ondotik, dinamizatzaileek bideoaren, argazkiaren eta soinuaren alorrean aditua den Nader Koochaki artista bideratu zuten herrira.

Irailean, hainbat egunez, herritarrak Koochakirekin proiektua lantzen aritu ziren. Azken igandean, irailaren 27an, egin zuten proiektuaren aurkezpena eta bertan azaldu zutenez, Aranoko puntu altuenetariko batean kamera ilunean oinarritutako kutxa bat jartzeko ideia bururatu zaie. Horrela, gainazalean egindako zulo txiki batekin, irudi bat proiektatu nahi dute. Esperientzia honekin lotura duen artelan bat lantzen ari dira.

Orain, proiektua hitzetik egitera pasatzeko, artista ideiak artikekto batekin lantzen ari da eta, ondo bidean, azaroan eginda egotea espero dute.

'Txor-txor' bakarrizketa saioa urriaren 15ean

Euskaraldia batzordeak antolatu du Beatriz Egizabalen emanaldia, izen-emateko aukera zabalik dela gogoratuz

TTIPI-TTAPA

Euskaraldia batzordeak, Lankurekin batera, *Txor-txor* bakarrizketa saioa antolatu du urriaren 15erako, ostegunerako (lekua eta ordua zehaztekozeuden hau idazterakoan).

'Txor-txor'

Beatriz Egizabal aktorearen eskutik, 45-50 minutuko bakarrizketa umoretsuaz gozatzeko aukera izanen dute entzuleek. 16 urtetik goitiko entzuleei bideraturiko saioa da eta euskaldunok egunerokoko egoeretan ditugun harremanei buruzko gogoeta du ardatz. Tartean, *ahobizi* eta *belarriprest*en rola, gazteen parte-hartzea eta aurreko edizioan izandako bizipenak oroitzeko parada izanen dute.

Oroitzapenak berpizteko hitzorduaz harago, azaroaren

20tik abenduaren 4ra eginen den Euskaraldiaren bigarren ediziorako prestatzen hasiak dira leitzarrak. Herriko 29 entitatek izena eman dute.

Herritarrentzat izen-ematea zabalik

Herritarrentzako izen-ematea oraindik irekita dago eta *www.izenematea.euskaraldia.eus* helbidearen bidez egin dezakete, rola aukeratu eta beharrezko galdetegia betez.

Emakume baserritarren topagunea urriaren 15ean

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Araitz, Arano, Areso, Anue, Atetz, Basaburua, Goizueta, Imotz, Lantz, Larraun, Lekunberri, Leitza, Odieta eta Ultzamako emakume baserritarren topagunea eginen dute urrian Leitzan. Hilaren 15ean, ostegunean, dute hitzordua.

LAGA Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Ultzamaldeko Mankomunitateak, Bertatik Bertara Dinamikak eta Cederna Garalur elkarteak antolatu duten hitzordua Atekabeltzen eginen dute. Goizez,

KRONIKA

11:00etatik 13:00etara bilduko dira.

Aurrera begira egutegia zehaztu eta tailerrak emateko asmoa ere badutela adierazi dute.

Liburutegia arratsaldez irekiko dute

Ikasturte hasierarekin batera, Leitzako liburutegiaren ordutegia aldatu dute. Abenduaren 23ra arte 14:00etatik 18:00etara egonen da erabilgarri. Eguberrietako etenaldiaren ondotik, urtarrilaren 7tik ekainaren 14ra, ordutegi bera izanen du liburutegiak.

Gazte Asanblada berriz ere biltzen hasia da

Gazte Asanbladako kideak berriz ere ostiraletan biltzen hasiak dira. Kontzertuak, karaokeak, hitzaldiak edota bestelako ekitaldiak antolatzen laguntzeko prest daudenak parte hartzera gonbidatu dituzte: «animatu eta etorri ostiraletan 18:00etan!».

Kontingentzia plana egokitzeko sinadurak bildu dituzte

Kontigentzia planean ikasleen beharrak ez direla kontuan hartu uste du Denak Bat Leitzako Erleta eskolako guraso elkarteak. Hori horrela, eskolari babesa adieraztearekin batera, «edozein erabaki hartzerakoan gure seme-alaben eskubide eta beharrak aintzat hartzeko» eskatuz sinadurak biltzen aritu dira. Urriaren 3an jaso zituzten eta guztira 185 sinadura bildu dituzte. Joan den astean, sinadura horiek bideratzeko eta hurrengo urratsak zehazteko bilera egitekoa zuten.

LEITZAKO SARE

Herritarrak presoei elkartasuna adieraziz

Leitzako Sarek, 650 tontor ekimenaren barne, Guratzmendi eta Eguzkizko muinora joateko deialdia egina zuen urriaren 3rako. Eguraldia ikusita, maiatzaren 8ra atzeratu zuten hitzordua, baina, karrapean bilduta, elkartasun keinua egin zieten.

Baserrietan banda zabala eskaini ahal izateko lanean ari dira

Dena ongi badoa, datozen hilabeteetan zerbitzua eskuragarri izatea espero dute

TTIPI-TTAPA

Herrigunean zuntz optikoa etxe gehienetara zabaldu ondoren, baserri auzoen eta zuntz optikorik gabe geratu diren etxeen egoera moldatzeko garaia iritsi da.

Hauteskundeetan aurkeztutako Herri Programan jaso bezala, banda zabala herri guztian eskuragarri izateko saiakera egiten ari da Leitzako Udala. Haien iduriko, herriko garapenean, «garrantzitsua» da telekomunikazio azpiegituretan herritarrak baldintza berdinak izatea, eta ildo horretan aurrera egiteko proiektu bat garatu nahian dabiltza.

Seinalea zabaltzeko lanean

Honela, Nafarroako Gobernuko enpresa publikoa den Nasertic-en aholkularitzarekin eta telekomunikazio arloan diharduen Wikai izeneko enpresaren laguntzaz, irrati-frekuentzia bidez Interneteko seinalea baserri auzoetara zabaltzeko ahalegina egiten ari da udala.

30 mega baino gehiago etxe eta baserri gehienetan

Telebistako antena eta auzoetan dauden errepikatzaileak baliatuz, banda zabaleko Internet seinalea, hau da, 30 mega baino abiadura handiagoko seinalea, eskaintzea posible izanen dela espero dute, herriko etxe eta baserri gehienetan.

Nasertic, Wikai eta Leitzako Udalaren arteko hitzarmen bat adosten ari dira momentu honetan eta, dena ongi badoa, datozen hilabeteetan aipatutako zerbitzua eskuragarri izatea espero dute.

UTZITAKOA

Urrutia bigarren harri-jasotze txapelketan

Harri txikien Euskadiko harri-jasotze txapelketa jokatu zen urriaren 3an Aiako (Gipuzkoa) probalekuan. 80 kilotik beherako kategoriako txapela Jagoba Otaegik jantzi zuen, orotara 7.412,50 kilo jasota. Josetxo Urrutia leitzarra bigarren izan zen, 7.000 kilorekin.

Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta Mikel Zabaleta alkatea lekua ikuskatzen.

Plazaolako geltokiari erabilera emateko aukerak aztertzen ari dira

JM BARRIOLA

2016an, Ederbideako dirulaguntzak baliatuz, Leitzako Udalak Plazaolako geltokiari eta ondoko biltegiari buruzko proiektu bat eta bideragarritasun plan bat egin zituen. Proiektuan gune horietan egiteko hainbat zerbitzu aurreikusi zituzten: kafetegia, aterpetxea, bertako produktuen salmenta puntua, bizikleten alokairu zerbitzua, autokarabanen parkinga...

Proiektua parte-hartze bidez zehaztu zuten, turismo mahaieko kideek landu zutelarik, eta hainbat hobekuntza proposatu zituzten. Adibidez, duela gutxi biltegiari emandako bigarren solairua, Turismo Mahaitik ateratako hobekuntza izan zen.

Orduz geroztik, udalak eraikin horien eta estazioko partzela ematea eskatuz kudeaketak eta bilerak egin ditu. Nafarroako Gobernua teknikoki aztertzen ari da, eta datozen hilabeteetan erantzuna izanen dutela espero dute.

Udalak erabilera emateko aukerak aztertuko ditu, «proiektu ederrak gauzatzeko potentzial handiko gunea» delako.

Eskola eremuan estalpe handi bat egiteko bilerak egiten ari dira

Iaz bezala, aurten ere, udala eskola eremuan estalpe handi bat egin ahal izateko Nafarroako Gobernuan eta parlamentuan bilerak eta kudeaketak egiten hasi da. Joan den urteko arrazoiei koronabirusak eragindako egoeraren beharrak gehitzen zaizkio aurten. Izan ere, ikasleek ez dute nahiko toki estali atsedenaldietarako, eta egoera kaskarrean dabiltza hara eta hona, Nafarroako Gobernuaren kontingentzia planak behartuta.

Helburua Nafarroako Gobernuko aurrekontu orokorretan partida bat lortzea da, estalpea egiteko finantziazioan laguntzeko (%60 eskatzen dute).

Gogoratu behar da, Berriozarren, Iturraman, Tuteran eta beste hainbat tokitan, honela egin izan direla. Leitzan dauden baldintza klimatologikoek eta eskola eremuan (Erleta eskola eta Amazabal institutua) elkartzen diren 640 ikasle inguruko pilaketengatik «oso beharrezkoa» dela uste dute. Gainera, eskola ordutegitik kanpo gune irekia denez, erabilera handia ematen ahal zaio.

BAZTAN

Rugby jokalariek elkarrekin harremanetan segitzeko asmoa dute. P. SAN MILLAN

Baztan Rugby Taldeak kirol eskaintza bertan behera uztea erabaki du

TTIPI-TTAPA

BRT-Menditarrak Rugby Taldeko zuzendaritza batzordeak gaur egun dauden zalantzak direla eta, momentuz kirol ekintza guztiak bertan behera uztea erabaki du, «errugbi segurua praktikatzeko baldintzak ez baitira betetzen». BRTk txapelketa autonomikoetan parte hartzen du eta momentuz antolatzaile diren Euskadiko eta Nafarroako errugbi federakundeek ez dute txapelketen berririk iragarri.

Egungo egoera dela eta, BRT Menditarrak taldeko zuzendaritzaren ustez ez da bideragarria kirol hau praktikatzea, «kontaktua handia baita, distantziak ezin dira mantendu eta musukorik ez dago».

Jokalari, haur, entrenatzaile eta familien osasuna ere ezin zute bermatu. «Klubeko taldeen batean koronabirus kasu bat izanez gero, talde horren konfinamendua eraginen zuen, 25 pertsona inguru. Nahiz eta inposatu eta gomendatutako segurtasun neurriak bete eta errespetatu (aldagelak ez erabili, materiala ez konpartitu, materiala garbitu etab.) taldekide guztiak kontaktu zuzenak izanen lirateke», diote.

Gaur egungo egoera ikusita, gizarteari lagundu behar diotela uste dute, kirola momentuz alde batera utziz. Zonaldean gure laguntza xumea eman nahi dute, birusaren transmisioa eragotziz. «Izugarrizko pena» dute kirola alde batera uzteagatik, hortaz, «egoera hurbiletik jarraituko» dute: «ea 2021ean kirol honetara itzultzen ahal garen».

Bien bitartean, taldekideek harremanetan segitzeko asmoa dute: «kontaktu gabeko ekintzak, formakuntzak… eginez».

Kutsatzeak saihesteko lagunarteko partidak bertan behera utzi dituzte.

Baztan Futbol Taldeak lagunarteko partidarik ez dutela jokatuko adierazi du

TTIPI-TTAPA

Baztan Futbol Taldeak, «jokalariak, teknikoak eta jarraitzaileak zaintzeko», denboraldi honetan lehiaketak hasi aitzinetik lagunarteko partidarik ez dutela jokatuko adierazi dute.

Bizi dugun egoera kontuan hartuz, aurten udaleko trofeoa eta hitzarturiko bertze partida guztiak bertan behera utzi dituztela iragarri dute.

Horrekin batera, erabakia ulertzea espero dutela ere gaineratu dute: «momentu hauetan izan daitezkeen kutsatzeak saihestea da gure lehentasuna». Eta zaintzeko deia egin dute: «ongi izan eta zaindu».

Ahots kontzertua larunbatean Elizondon

In Tempore abesbatza eta Ganbara orkestrak *Tuvayhun. Beatitudes for a Wounded World* emanaldia eskainiko dute heldu den larunbatean, urriaren 17an, Elizondoko Santiago parrokian. Ilunabarrean, 20:00etan, dute hitzordua.

Baztan Kantuz Lekarozen igande eguerdian

Inguruko kantuzaleak Lekarozen bilduko dira igandean, urriaren 18an, Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako hitzorduan. 12:00etan plazatik abiatuko dira eta ordubetez herria ahots eta doinu gustagarriz girotuko dute.

BRIKO BAZTAN, SL
Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.
T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan
• Kontabilitate zerbitzuak
• Zerbitzu fiskalak
• Lan-aholkularitza
• Aholkularitza juridikoa
• Herentzia eta Testamentuak
• Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
• Datuen babesa
• Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com
Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Baztan Abentura Park proiektuaz erabakirik ez

Batzar Orokorrak oraingoz ez bozkatzea erabaki zuen eta horren ordez lan batzorde bat osatu da

TTIPI-TTAPA

Baztango Batzar Orokorrak Baztan Park handitzeko BKZ-Navarra Aventura enpresaren proiektuaren inguruan ez bozkatzeko hautua egin zuen urriaren 1eko bilkuran. Batzarrak, batzarkideen iritziak entzun ondotik, gaiaren inguruko erabakirik ez hartzea erabaki zuen aho batez, Berro eta Beartzun auzoko bizilagunek egindako eskariarekin bat eginez. Honen ordez, lan batzorde bat sortuko dute gaiaren inguruan egon litezkeen zalantzak argitzeko. Batzorde hau eratzearen aldeko 16 boto izan ziren, 12 kontra agertu ziren eta bi abstentzio izan ziren.

Orotariko iritziak

Batzarkide batzuek proiektuaren ideia ona badela adierazi bazuten ere, gaiak polemika piztuko duela onartu zuten.

Baztango Ezkerrako Iñigo Iturraldek egitasmoa «interesgarria» dela adierazi zuen, baina Berro eta Beartzungo auzotarren eskaria babestu zuen, errepidea zabaldu beharko litzatekeela erranez, «ez dugu duela sei urteko akats bera errepikatu behar». Florentino Goñik, bere udal taldekideak, «zail» ikusten du, Nafarroako Gobernuak errepidea zabaltzeko lanak egitea, «egin beharreko bertze proiektuak ere badiralo, Baztanberrirako sarbidea, erraterako. Urtero egiten dugu eskaria eta urtero erantzun bera jasotzen dugu: ez dago dirurik».

Joseba Otondo, Batzar Orokorreko presidenteak aipatu zuenez, «edozein inbertsio egin aitzinetik udaleko teknikariei galdegin behar zaiela badakite herritar guztiek eta kasu honetan, sustatzaileek ez dute inolako kontsultarik egin. Egin izan balute, jakinen lukete zuhaitzetan ezin dela etxolarik eraiki».

Xabi Torres EH Bilduko zinegotziaren ustez, «BKZren planteamendua hordago bat botatzea izan da, proiektua aurkeztu du dena egiteko baldintzarekin, edo bertzela deus ere ez». Balleko Etxeak ez dituela ateak itxi nahi, baina gauzak bertze modu batera egin behar direla erran zuen. Mikel Sobrino Elizondoko kuarteleko batzarkideak ere herrilurrak hartzeko proiektu bat aurkeztu behar dela gogorarazi zuen, «eta kasu honetan ez da horrelakorik egin, enpresak ez du zuzen jokatu».

UTZITAKOA

Berdintasun Batzordea martxan

Ikasturte hasierarekin batera, Berdintasun Batzordea martxan da berriz. Irailaren 30ean egin zuten bilkuran bederatzi lagun bildu ziren eta azaroaren 25aren, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren, bueltan izanen diren ekitaldiak antolatzen hasi ziren.

Gizarte jardueretarako 16.208 euroko dirulaguntzak ebatzi ditu Balleko Etxeak

TTIPI-TTAPA

Herrian gizarte proiektuak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteendako 2020 urteko dirulaguntzak ebatzi berri ditu Balleko Etxeak, tokiko gobernu batzordearen bidez. Denera 16.208 euro banatuko ditu eta ondoko hauek izanen dira onuradunak: Xauli (2.419,10 euro), Ademna (1.661.12 euro), Anfas (2.386,85 euro), Bidelagun (2.870,67 euro), Elikagai Bankua (1.903,03 euro), Harremanak (1.499,84 euro), Asorna (1.467,59 euro) eta Anasaps (1.999,80 euro).

'Erik eta Win' ikuskizuna urriaren 25ean Iruritan

Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean dute hitzordua, igandean, 19:00etan

TTIPI-TTAPA

Bertsoa, antzerkia, poesia, musika... uztartzen dituen *Erik eta Win* ikuskizuna izanen da urriaren 25ean, hondarreko igandean, Iruritan. Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean dute hitzordua 19:00etan. Ikusleek, emanaldiaz gozatzeko, ez dute sarrerarik ordaindu beharko, baina edukiera mugatua izanen da.



BUHAMEAK.EUS

Harremanak eta estereotipoak umorez zipriztinduta

Asier Sota antzezle eta zuzendariak gidatutako obran Ander Lizarralde Jimeno eta Unai Muñoa Amundarain bertsolariek euren baitako egiak eta esperientziak kontatu eta harremanak aztertuko dituzte: nola lagundu duten elkar, zer-nolako harremanak izan dituzten emakumeekin, nola ezkutatu dituzten desioak eta behar emozionalak... Eta gizonen estereotipoei buruz hausnartuko dute.

Lizarraldek eta Muñoak orain artean entzun gabeko doinuak eta kantuak plazaratuko dituzte, umorea ardatz dutela. Horretarako, Imanol Kaminoren piano zein eskusoinu doinuak eta Aitor Atxegaren baxu zein gitarra doinua izanen dituzte lagun.

JM ONDIKOL

Ondarearen jardunaldiak Erratzun

Ondarearen Europako Jardunaldien harira, bisita gidatuak izan ziren iraileko azken asteburuan eta urriko lehenbizikoan Erratzun. Bertaratu zirenek San Pedro elizako klaustroari eta herriko zenbait etxebizitzari buruzko xehetasunak jaso zituzten Pello Iriarteren eskutik.

BTT proba eginen dute Gartzainen urriaren 17an

TTIPI-TTAPA

Heldu den larunbatean, urriaren 17an, BTT proba eginen dute Gartzainen. 15:30ean hasita, promesek, hasiberriek, alebinek, infantilek eta kadeteek bizikleta hitzorduaz gozatzeko aukera izanen dute. Animatu!

UTZITAKOA

Txirrindulari taldea martxan

Txirrindulariek pedalkada indartsuekin hasi dute denboraldia. Urri hondarrean kadeteak Arazuriko Rural Kutxa BTT proban izan ziren; gaztetxoenek, berriz, Unzuen egin zen lasterketan parte hartu zuten. Batzuek zein bertzeek, gozatzeko aukera izan zuten.

Abesbatza ttikia asteroko entseguekin hasia da

TTIPI-TTAPA

Joan den urriaren 7an hasi zuen ikasturtea Elizondoko Abesbatza Ttikiak eta asteazkenero elkartuko dira Iruritako Gizarte Bilgunean. Ordutegia dagoen jendearen arabera antolatuko dute, baina hasiera batean 17:30ean eginen dituzte entseguak ttikiekin eta ondotik koxkorragoekin.

Abestu eta ongi pasatzeaz gain Klara Mendizabal sopranoaren bisitak ere izanen dituzte teknika lantzeko. Abesbatza Ttikitik adierazi dute entseguak eta emanaldiak segurtasun neurri guztiekin eginen dituztela. Izena eman nahi duenak 620 22 84 55 telefonora deituz egin dezakete. Animatu!

«Geroz eta gehiago gara bizikletaz mugitzen garenak»

AITOR TXARTERINA GARTZAINEN BIZI IZANDAKO BILBOTARRA

Aitor Txarterinak bizikletak konpontzen ikasteko tailerrak ematen ditu. UTZITAKOA

TTIPI-TTAPA

Bilbotarra da sortzez, baina «bizitza erdia» Nafarroan eman du Aitor Txarterinak. Gartzainera, lehenbizikoz, lanera etorri zen: «Baztan hotelean sukaldari aritu nintzen hiruzpalau hilabetez». Eta, ordutik, herriarekiko loturari eutsi dio.

Zein dira zure zaletasunak?

Zuhaitzak landatzea, postreak asmatzea, xakean aritzea, bizikletaz ibiltzea, mendira joatea, haurrekin jolastea, museoetan pinturak ikustea, hizkuntzak ikastea eta bertze hainbat gehiago.

Noiz eta nolatan hasi zinen bizikletak konpontzen?

Bizikletak konpontzen nire kabuz hasi nintzen eta gero Txema Muruzabal lagunarekin ikasi nuen. Ikasten segitzen dut, ez baita sekula akitzen! Betidanik gustatu zait mekanika, baita tornua eta forja ere, metalgintza oro har.

Konpondu bai, eta ibili? Ohiturarik baduzu?

Bai, konpontzeaz gain, ahal dudanean, ibiltzen naiz. Batzuetan mendian barrena, bertzetan errepidean, eta gehienetan hirian.

Gero eta gehiago dira bizikletan ibiltzen direnak... Gehiago ere bada, Baztanen Izterpeko Matxinada egitasmoa bizikletan erabilera sustatzeko sortu zen...

Bizikleta sustatzea bizikleta beraren historiarekin hasi zen. Zorionez, gero eta gehiago gara bizikletaz mugitzen garenak eta hau ez dago gelditzerik. Mundu mailako mugimendua da, eta erreferente anitz daude. Une ederra da bizikletarako!

Urriaren 17rako eta 24rako bizikletak konpontzeko tailerra eskaintzeko asmoa duzu. Nolatan animatu zara?

Proposatu egin zidaten eta ezin ezetzik erran. Ni beti bonbardaketetarako prest egoten naiz. Horrelako tailerrak egokiak dira jakintza konpartitzen delako. Arrotxapean sei urtez ibili naiz mekanika irakasten eta orokorrean jendea gustura gelditu izan da ikastaroarekin.

«GIRO ONEAN ERABILGARRIA DEN ZERBAIT IKASTEKO AUKERA DAGO»

Ikastaro horietan, parte-hartzaileek zer ikasi ohi dute?

Zuloak nola estaltzen diren, balazta sistemak ulertzen, transmisioa konprenitzen, ergonomia zer den, bizikleta nola babestu ondorioztatzen eta galderak egiten... Hor nonbait!

Ikastaro teorikoa izaten da edo praktikan paratzeko aukerarik izaten dute?

Ikastaroaren %26 praktikoa da, %71 teorikoa. Eta, gainerakoa interes gabeko solasa izanen da.

Nori bideratua izaten da?

Ikastaroa ez dago zehazki inori zuzendurik. Haur ttipiek akaso ez lukete ulertuko, baina zazpi urtetik aitzinerako guztiendako egokia izan daiteke.

«TAILERRETAN JAKINTZA PARTEKATZEN DUGU»

Nola animatuko zenuke jendea tailerrera?

Giro ona sortzen da, erabilgarria den zerbait ikasten da eta euskaraz!

Zaletasun bera duten jendea biltzeko ere badira halako ikastaroak... Akaso, hortik bizikleta buelta bat ematera joanen dira?

Egiazki, bortz orduko ikastaroa akitutakoan jendea bazkaltzera joaten dela uste dut. Akaso bizikleta hartuko dute... etxera joateko.

Bizikletazaleei Baztanen edo inguruan ibiltzeko bueltaxkaren bat gomendatuko zenieke?

Akaso beraiek gomendatu beharko didate Baztan inguruan ibiltzeko bidexkaren bat. Nik, ordainetan, bertakoei Alemaniako bideak erakuts niezazkieke.

Familiendako plastika lantegia azaroan larunbatero

Sonia Ilzarbe eta Eneko Perezen eskutik, bortz eta hamaika urte bitarteko haurren familiendako plastika lantegia izanen da azaroan Elizondon. Arizkunenea kultur etxean dute hitzordua, larunbatero (hilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an), 17:30etik 19:00etara.

'Brioche' ogia egiteko tailerra ortziralean Elizondon

Etxekoa bezalakorik ez dagoelako, *brioche* ogia egiten ikasi nahi duenak Elizondon izanen du aukera. Edorta Salvadorrek irakatsiko die urriaren 16an, ortziralean, ematekoa duen tailerrean. Arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara, dute hitzordua.

Almandozko harrobiaren eta herriaren ikuspegia. JM ONDIKOL

Harrobia zabaltzeko proiektuaren kontra 69 almandoztar

TTIPI-TTAPA

Almandozko Arritxuri harrobia zabaltzeko egitasmoari buruz solastatzeko batzarrea egin zuten irailaren 25ean Almandozen.

Proiektu horri alegazioak aurkeztu dizkiote, herrigunetik hurbil ailegatuko bailitzateke harrobia orai planifikatua dagoen moduan, hilerritik 23 metro eskasera. 69 herritarrek sinatu dute alegazioa eta bertze batek, modu partikularran, bertze alegazio bat ere aurkeztu du.

Lehenagotik ere eztabaida sortua du Almandozko harrobiaren zabaltzeak. Joan den urtean harrobirako sarbidearen inguruan izan zen kalapita. Zabaltze-proiektua urriaren 1eko Batzar Orokorrean ere aztertu zuten eta 26 juntakidek kontra bozkatu zuten eta lau abstenitu egin ziren.

Bertanek komertzio txartela erabiltzeko kanpaina abiatu du

TTIPI-TTAPA

Baztango Merkatari, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresa Elkarteak, Bertan Baztanek, herritarrak erosketak komertzio txartelarekin egitera animatzeko kanpaina antolatu du. Kanpainak azaroaren 30era arte, astelehenera arte, iraunen du.

Bortz, hamar eta 50 euroko deskontuak

Bertan Baztanek eta Nafarroako Rural Kutxak elkarlanean kanpaina abiatu dute. Erosketak ordaintzerakoan komertzio txartela erabiliz gero bortz, hamar edo 50 euroko deskontuak lortzeko aukera eskaini dute.

Txartela doan

Komertzio txartelik ez duten bezeroei, egitea arras erraza dela eta eskuratu ahal izateko ez dela deus ordaindu behar adierazi diete.

Gainera, txartela egiten duenak, momentu horretan bertan, erosketa egiten ari den establezimentuan hamar euroko deskontua izanen duela oroitarazi nahi izan dute.

JM ONDIKOL

Legoekin irudimena eraikiz

Nafarroako Komiki Azokaren XI. edizioaren barne, lego tailerra egin zuten irailaren 26an Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Lego piezak erabiliz, eszena eta istorio andana irudikatzeko aukera izan zuten 15 parte-hartzaileek. Tailerra borobiltzeko, zozketa egin zuten.

Kiroldegiko estalkia aldatzeko 130.000 euroko inbertsioa eginen du. JM ONDIKOL

Baztango Udalak kiroldegiko estalkia ordezkatzeko lanak eginen ditu

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak kiroldegiko estalkia ordezkatuko du, guztiz aldatzeko «premia larria» eta «arras hondatuta» dagoenez. Kontuan hartuta inbertsioa ez zegoela aurreikusita 2020ko Aurrekontu Orokorretan aurrekontuan aldaketa egitea adostu dute.

Nafarroako Toki Ogasunaren Partaidetza Funtsaren bidez, Baztango Udalak 171.616 euro jasoko ditu, Covid-19ak eragindako neurri bereziak eta presakoak hartzeko. Kiroldegiaren kasuan, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiak obra hori finantzatu daitekeela baieztatu du eta, beraz, udalak obra horri ekinen dio. Horretarako, 130.000 euroko diru-saila prestatu du.

Aparteko funts hori jasotzen duen udalerri bakoitzak gutxienez %15eko ekarpena gainditzen duen inbertsioa egin beharko du, Baztanen kasuan 25.742,40 euro. Diru-kopuru hori diruzaintzako gerakinari esker emanen da, 2019ko kontuak likidatu baitira. Gainerako 104.257,60 euroak aparteko funtsari esker finantzatuko dira.

Ana Mari Marin omenduko dute urriaren 23an

Mahai-ingurua eta solasaldia izanen dituzte Arizkunenea kultur etxean 19:00etan

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 24an hil zen Ana Mari Marin margolari elizondoarra omentzeko hitzordua izanen dute urriaren 23an, ortziralean, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean.

Mahai-ingurua eta solasaldia

Pregón aldizkariak antolatutako hitzordua 19:00etan zehaztu dute. Pello Fernandez Oyaregui, Salvador Martin Cruz, Maria Jose Marin eta Lander Santamariarekin mahai-ingurua eta solasaldia izanen dira.

Abuztuaren 24an hil zen Marin.

Bezperan, hau da, urriaren 22an, hitzordu bera izanen dute, Iruñeko Kasino Nagusi Berrian, 19:30ean.

Eriz magoaren ikuskizunaz gozatu dute aniztarrek. MAITANE MARITORENA

Eriz magoaren ikuskizuna izan dute Anizko ez-bestetan

M. MARITORENA

Ez-besta gisa definitu diren egunetan, aniztarrek seinale gisa legeak eta egoerak uzten duena errespetatuz, kultur ekitaldiren bat antolatzea erabaki zuten eta urriaren 3an Eriz magoaren ikuskizuna izan zuten. Anizko bestetako bereizgarri den Anizko gazteak blusa urdina soinean, distantziak mantenduz, ikuskizun ederraz gozatzeko aukera izan zuten. Gainera, bestek iraunen luketen egunetan koheteak bota zituzten, musika paratu zuten eta herri kiroletan bakarkako probetan aritu ziren... Ez-bestek, heldu den urtean gogo gehiagoz hartzeko balio dezatela.

(H)ilbeltza bekaren deialdia egin dute aurten ere

Laginak abenduaren 4a arte bilduko dira eta irabazlearen izena ilbeltzaren 18an emanen dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, (H)ilbeltza elkartea eta Txalaparta argitaletxearen laguntzarekin, euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko asmoz, (H)ilbeltza beka plazaratu du aurten ere.

Laginak abenduaren 4a arte bilduko dira eta epaimahaikideak diren Garazi Arrulak (Txalaparta), Miren Gorrotxategik ((H)ilbeltza) eta Joseba Otondok (Baztango Udala) irabazlearen izena emanen dute ilbeltzaren 18an.

Dirulaguntza

Deialdi honi 6.000 euro esleituko dizkiote. Lagin irabazlearri 3.000 euro emanen zaizkio 2021eko ilbeltzan, eta idatzia akitzerakoan bertze 3.000 euro. Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Baztango Udalaren webgunean, udaletxeko iragarki-oholean eta eskualdeko komunikabideetan iragarriko dute.

Genero beltzeko proiektuak

Deialdirat aurkeztu nahi dutenek narratibako lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkeztu beharko dituzte, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta bertze inondik moldatuak ez direnak. Aurkeztutako proiektua genero beltzekoa izatea eta lanaren originaltasuna eta kalitatea baloratuko dituzte.

Lanak aurkezteko epea

Formatu digitalean (PDF bertsioa) edo paperean aurkezten ahalko dira. Lanak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da. Eskaria 2020ko abenduaren 4a arte egin ahal izanen da Baztango Udaleko erregistroan, eguna bera barne. Bekaren oinarriak eta informazio gehiago Baztango Udal webgunean.

Nolanahi ere, beka eman gabe utz daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako proiektuetatik bakar batek ere ez badu gutxieneko kalitaterik erdiesten eta epaia apelaezina izanen da.

Ainhoa Maritorena Anizko alkatea.

Osasun larrialdia dela eta, Anizko bestak bertan behera uztea erabaki dute

TTIPI-TTAPA

Ainhoa Maritorenak lau urte daramatza Anizko alkatetzan, bi agintaldi. Izan ere, Baztango herrietan alkatetzak bi urteka aldatzen dira. Herriaren buru izatea bere buruarendako erronka handia izan dela aitortu du aniztarrak baina hartutako erabakiekin kontent dagoela adierazi du. Esperientziari dagokionez, «herritar guztiek herri baten ordezkari izatea zer den jakin beharko luketela» plazaratu du, «esperientzia aberasgarria» bada ere, «kezka handiko egoera baita, herri bat ordezkatzen duzun heinean».

Anizko herritarren bizitzan ere Covid-19a pandemiak eragina izan du, nahiz eta herri ttipia izateak kasu honetan «hainbat abantaila» dituela argi ikusi ahal izan den. Anizko kasuan, supermerkatu eta ostaturik ez izateak eskualdeko bertze zenbait herritan baino lasaiago ibiltzeko aukera sortu du, baita «jende mukuruak saihesteko» aukera ere. Maritorenaren hitzetan, «musukorik gabe etxetik ateratzeak ez digu ezinegonik sortzen». Hala ere, gaineratu duenez, «herri ttipietan abantailak izateak ez du erran nahi legea bete behar ez dugunik». Herritar batzuk «izutuak» daudela ere onartu du.

Aurten herriko bestak gabe

Urriaren lehendabiziko asteburuan ospatzekoak zituzten Anizko bestak, baina aurten, bertze hainbat ekitaldi bezala, ez ohikoak izan dira. Aniztarrek batzarrean erabaki zuten legeak uzten duenaren barnean ekitaldiak antolatzea eta, hortaz, Eriz magoa gonbidatu zuten. Bestetako bereizgarri eta oroigarri gisa kohetea bota eta bestetako blusa ere jantzi zuten.

Presoen aldeko aldarria hainbat herritan

Anizen, Elizondon, Amaiurren, Erratzun (argazkian)... Sarek antolaturik Izan Bidea egitasmoarekin bat egin eta euskal presoen etxeratzearen alde bildu ziren.

ERNAI BAZTAN

ZUGARRAMURDI

Guttitan ikusten da gure plaza hutsik, batere autorik gabe. MARIFA ETA KORO

Herrian hobetzeko kontuei buruz aritu dira batzarrean

31 herritar bildu ziren urriaren 2an, eta jende pilaketek sortzen dituzten arazoak nola moldatu izan zuten solasgai

MARIFA ETA KORO

Urriaren 2an herri bilkura bat egin zen frontoiean. Herritar talde batek deiturik, herrian hobetzeko direnei buruz aritu ziren.

Azken urte hauetan bisitari kopurua aunitz haunditu da, eta aunitzen sentsazioa masifikazioarena da. Argi dago herriarentzat turismoa beharbeharrezkoa dela, udalak hortik baitu diru-iturri haundiena, eta sektore horretatik ere jende aunitz bizi delako. Baina bertze aldetik, herritarren bizi-kalitatea okertu dela ere argi dago.

31 lagun bildu ziren, eta hainbat hobekuntza bildu zituzten: herria gurutzatzeko sortzen diren kotxe buxonak, karriketan oinez ibiltzeko diren zailtasunak, plaza kotxez hustutzeko beharra, Herriko Etxeko antolamentuaren proiektua, zaharrek egoteko toki bat falta dutela… Hobekuntza hauek bildu eta udaletxean aurkeztuko dituzte. Pleno berezi bat ere eskatuko dute honi buruz aritzeko.

Amaia eta Candidoren ezkontzarako apainketa berezia

MARIFA ETA KORO

Gure herri ttiki hauetan zernahi gertaera, berri haundi bat izaten da, adibidez, ezkontza bat. Eta halako bat izan genuen irailaren 26ean, Amaia eta Candido ezkondu baitziren. Argazkian, herritar batek ezkontzarako Herriko Etxeko atean egindako apainketa ageri da.

URDAZUBI

SOS Alkerdik herriko planoari helegitea aurkeztuko dio

Intereres Kulturaleko Ondasun izendatutako Berroberriko leizeak ez dira ageri

ARANTXA ETA IRAIA

Aurtengo herriko planoa aurkeztu du udalak eta honek zer errana ekarri du. Duela urte batzuk Interes Kulturaleko Ondasun izendatu zituzten Alkerdi auzoko Berroberriko leizeak eta plano honetan hauek ez agertzeak SOS Alkerdi plataforma harritu du. Nafarroako Gobernuak plano hau ontzat eman badu ere, elkarte honek urriaren 2an egin zuen bileran erabaki bezala, helegite bat aurkeztuko du leize hauek udal planoan ager daitezen eskatuz.

Bisitariak leizeetan.

Etxelekuko familia, gasnekin.

Etxelekua gasnategia berriz ere nazioartean saritua

Etxelekua gasnategia nazioartean berriz ere saritua izan da. Urte batzuk lehenago lortu duten bezala, aurten ere Etxelekua gasnategiak Londresen banatzen diren Grate Taste lehiaketako izar bat lortu du gasna naturalen kategorian. Berriz ere zorionak!

Ugarana elkarteak kirol jarduerak antolatu ditu

Ikasturtero Ugarana emakume elkarteak kirol jarduerak antolatzen ditu. Nahiz eta aurten egoera zailago izan, zenbait kirol jarduera plazaratu ditu. Astelehenetan streching praktikatzeko aukera izanen da 17:30, 18:30 eta 19:30ean. Asteartetan, yoga eta pilates klaseak antolatu ditu 18:00etan eta 19:30ean. Jarduera guztiak kultur etxean izanen dira, eskolako kiroldegia baino handiagoa baita. Aurten ez da zumba klaserik antolatuko, segurtasun neurriak mantentzea zailago baita.

Herriko nekazariek arto biltzea egin dute

Inguruko nekazariek bezala, Urdazubikoek ere azken eguraldi onak aprobetxatuz uda hondarreko arto biltzeak egin dituzte. Garai batekoa berreskuratuz, azken urteetan ekitaldi garrantzitsua bihurtu da eta ez bakarrik baserrientzat eta nekazarientzat, baita herriko haur anitzentzat ere. Gero eta haur gehiago dira belaietara hurbiltzen direnak lan hau nola egiten den ikusi eta traktoreetan igo nahi izaten dutenak. Badirudi nekazaritzak segida izanen duela herrian!

Euskaraldian izena emateko epea zabalik da

Arigune rola hartu nahi duten entitateek urriaren 11 zuten izena emateko hondarreko eguna

GANEX / TTIPI-TTAPA

Herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea helburu duen Euskaraldiaren bigarren edizioa hazilaren 20tik abenduaren 4ra eginen da. Horren karietara, bilkura egin zen buruilaren 30ean Lur Berri gelan eta bertzeak bertze, Patxi Basurko Jauregi eta Patxi Dutournier kultura zinegotziek eta gizarte gaiez arduratzen den Marie Pierre Praderek parte hartu zuten, baita Bertrand Deleonek ere.

'Ahobizi', 'belarriprest' eta 'arigune'

Euskaraldiaren edizio honetan, banaka *ahobizi* eta *belarriprest* rolak hartuta parte hartzen ahalko da eta taldean, entitateek *arigune* rola hartuko dute. Hain zuzen, entitateek izena emateko epea urriaren 11n finitzekoa zen, eta lerro hauek idazterakoan, oraino izena emateko epea zabalik zela, Saran Aldaxka haurtzaindegiak eta Olhain ikastolak emana zuten izena arigune izateko. *Ahobizi* eta *belarriprest* izan nahi dutenek, berriz, oraino izena emateko aukera izanen dute, *euskaraldia.eus* web orrian.

Egun horietan denok euskaraz solas egitea izanen da erronka, ostatuetan, dendetan eta bertze lekuetan, baina ez bakarrik leku horietan, baita karrikan eta etxean ere. Hemendik urte batzuetara denak euskaraz mintzo egitea gauza ederra litzateke. Duela 70 bat urte, Saran bederen, denek euskaraz aritzen ginen, baina hori orduan bezala izateko, urte batzuk joanen dira.

Usoaren Astearen karietara hainbat ekitaldi

Igandean, urriak 18, Usoaren Kofradiak desfilea eginen du, 12:00etan. Astelehenean, *Kontrabandisten bidetik* bisita gidatua eginen dute. Urriaren 21ean eta 23an usategietara bisitak eginen dituzte eta 22an, eliza barnean. Turismo bulegoan eman behar da izena.

Argentinako topaketa bertan behera utzi dute

Urriaren 24an eta 25ean hitzordu berezia iragatekoa zen, Argentinako topaketa, hain zuzen, eta horren karietara, kanta, dantza eta antzerki emanaldiak egitekoak ziren. Covid-19a dela eta, ordea, alde batera gelditu dira aurreikusitako ekitaldi guztiak.

GANEX

Mariluz eta Iribarren finalean

Julen Mariluzek eta Oihan Iribarrenek ezin izan zuten errebotean esku-huska Frantziako txapela lortu. Urruñan jokatu zuten finala, baina Mariluz eta Iribarren baino gehiago izan zen bertze bikotea. Hondarrean, 30 eta seiko emaitzarekin finitu zuten partida.

UTZITAKOA

Gauenarak behatzeko bideozaintza

Akitaniako Natura Guneen Kontserbatorioak leizeetan gauenarak zaintzeko bideozaintza sistema ezarri du. Babestutako eremuan kamara infragorriak utzi dituzte, eta leizean dagoen gauenara kopurua eta haien jokamoldea aztertu nahi dituzte. Pantailen bidez, zuzenean gauenarak behatzeko aukera ere izanen da.

GANEX

Lesakako parke eolikoa hizpide

Lesakan egin nahi duten parke eolikoaren karietara, Endara Bizirik plataforma urriaren 2an Lur Berri gelan izan zen, eta Herriko Kontseiluari proiektua ezeztatzeko laguntza galdegin zion. Atxiki ditzagun gure eremu politak gazteei orain diren bezala uzteko, gure arbasoek guri utzi zizkiguten bezala.

Buraso eta haurren arteko harremanak ELEA gunean

Buraso eta haurren arteko harremanen egitura hau, irekia da ortzegun guziz goizetan 09:00etatik 11:30 artean. Burasoentzat, aitatxi-amatxientzat eta 0 eta 6 urte arteko haurrentzat den gune hau urririk eta anonimoa da, etor zaitezke izena eman gabe. Lehen haurtzaroarentzat den material berezia eta kafe on batek goaitatzen zaituzte. Pilota plazaren gibelean kokatua da ELEA, Oihartzuna gelan, hurbildu lasai, harrera ona izanen duzue.

Country dantza ikastaroak Denen-etxeko Zaldubin

Urdanka elkarteak oroitarazi du, ortzirale guziz (18:30etik 20:30 arte) antolatzen dituela bere country dantza kurtsoak Ameriketako Estatu Batuetako dantza honen ongi menperatzeko. Zahar eta gazteak nahasten ahal dira giro ezin hobean, country musika erritmo bizidunarekin, Zaldubi gelan, Denen-etxean. Urdanka elkartetik diotenez, «ongi etorriak izanen zarete, ez huts egin». Cowboy kapela eramatea ere ez da beharrezkoa, noski!

Marie Goyenetche eta Housset-Chapelet, elite mailako finalistak. GUERENDIAIN

Herriko pilotariek frontball finalak jokatu dituzte

Irailaren 19an Kinka kiroldegian aritu ziren Goyenetche anai-arrebek denetariko emaitzak izan zituzten

JEAN-LOUIS BESSONART

Kinka kiroldegian, estrenaldi ederra zuten federazioko finalak jokatu baitziren frontball modalitatean irailaren 19an. Jendalde polita bildu zen, pilota joko berezi hau hartzeko gune aparta zelakoan eta ikusmina sortu zuen bi senpertar anai-arrebek parte hartu zutelako final horietan. Emaitzen aldetik denetarik izan genuen, halere plazerrekin aritu ziren: Olivier Goyenetche artekoak mailan Julen Mariluz saratarraren kontra aritu zen, eta senpertarra galtzaile izan zen. Baina arreba Marie Goyenetchek irabazi zuen artekoak mailan. Haatik, ondoko partida, elite maila delakoan amor eman zuen Arbonako Maritxu Housset-Chapelet-ren kontra, azkeneko hau emazteen pilotan goren-gorenean baitabil.

Esku-huskako joko berezi honetan kautxuzko pilota erabiltzen da, eta emazyte nahiz gizonezkoaek jokatzen dute. Eskuko minarekin dabitzanentzat ere egokia da, pilota goxoagoa baita.

Alexander Big Band taldea urriaren 31n entzungai Larrekon

TTIPI-TTAPA SENPERE

Alexander Big Band musika taldeak jazz kontzertua emanen du urriaren 31n, larunbatean 20:30ean, Larreko gelan. Sarrera 15 euro gostako da (18 urtez beheitikoek, 5 euro). Hogei musikariz osatua da taldea, horietarik bat kantari paregabea.

Alexander Big Band taldeak jazz emanaldia eskainiko du Larrekon.

Bidazik baratze ekologikoei buruz solasaldia prest du Lesakan

TTIPI-TTAPA

Baratze ekologikoei buruzko hitzaldi bat antolatu du Bidazi elkarteak urriaren 23an, ortziralean 19:00etan Lesakako udalaren erabilera anitzeko aretoan (Koskontako Bidea 7, 2.). Bidaurreta herrian gisa honetako baratzea daukaten Aingeru Tabar eta Mikel Etxegarai etorriko dira azalpenak ematera.

Beraien esperientzia kontatuko dute, bai hasieratik gisa honetako proiektu bat martxan emateko kontuak, baita alderdi teoriko eta praktikoak ere (distantziak, errotazioak...).

Argazkien bidez emanen dituzte azalpenak, eta bistan da, galderei ere erantzuna ematen saiatuko dira.

Tokiak mugatuak direnez, parte hartzeko urriaren 19a baino lehen izena ematea beharrezkoa da *info@bidazi.eus* helbide elektronikora idatziz, edo Bidaziko Whatsappera (640 96 63 40) bidaliz.

Aingeru Tabar, Bidaurretan.

ORBELA
SENDERISMOA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

«Helburu zehatzik gabe kirolaz gozatzen segitu nahi dut»

JOSEBA LARRALDE ALZUGARAI BERAKO MENDIKO LASTERKARIA

Duela hamarkada bat txirrindularitzan, profesionalen mailan ibili zen Berako kirolaria. Azken urteotan, ordea, txirrindularitza utzita mendian goiti eta beheiti dabil lasterka, eta gustura gainera

G. PIKABEA BERA

Pedalei eraginez egin zen ezagun, eta pedalak alde batera utzita, bi oinen gainean segitu du bidea Joseba Larralde Alzugaraik (Bera, 1986). Bizikletan zein mendian lasterketa, bietan ere gustura, maite baitu kirola, hainbertze «momentu on» eman dizkion bere zaletasunik handiena hori baita.

Haurtzarotik datorkio afizioa. «Beti harat-honat ibiltzen nintzen, mendian, bizikletan, pilotan, arrantzan...». Etxe barrenean «denbora gutti» pasatzen zuen horietakoa omen zen. Koska bat goiti egitera ere animatu zen eta bederatzi urte zituela lehiatzen hasi zen. Parte hartu zuen lehenbiziko proba irabazteak segitzeko bidea ireki zion eta lehenbizi afizionatuetara eta gero profesionaletara saltoa egin zuen.

Profesionaletan bi urte

Txirrindularitzan, afizionatuen mailan ibili zeneko oroitzapen «hagitz onak» gordeak ditu Larraldek, «azken batean, astebururo lasterketetan elkartzen ginen lagun talde bat ginen. Nahiz eta elkarren artean lehia izan, hagitz momentu onak pasatzen genituen». Garaipen batzuk ere lortu zituen, hala nola, Nafarroako 23 urtez beheitikoen txapela.

Profesionaletarako urratsa, berriz, «ttikitako amets bat egia bihurtzea» izan zen eta onartu digunez, «ilusio handiarekin hartu nuen». 2009tik 2011ra iraun zuen amets hark, eta tartean, «momentu on aunitz» izan zituela kontatu digu. Areago, «momentu txarretan aitzinera segitzen erakutsi zidan». Dena, ordea, ez zen berak nahi bezalakoa eta «neraman bizimoduarekin gustura ez nengoelako txirrindularitza uztea erabaki nuen». Aitortu digunez, «ez zen erraza izan erabakia hartzea».

Joseba Larralde mendian goiti lasterka.

Motzean

- **Mendi bat?** Larhun.
- **Txirrindulari bat?** Vincenzo Nibali.
- **Mendiko lasterkari bat?** Fernando Etxegarai.
- **Lasterketarik gustukoena?** Arantzako Mendi Lasterketa.
- **Lasterketarik gogorrena?** Livigno Skymarathon (Alpeak, Italia).
- **Txirrindularitza eta mendiko lasterketa ez den bertze kirol bat?** Pilota.
- **Bisitatuko zenukeen toki bat?** Norvegia.
- **Maniarik lasterketetan parte hartu aitzinetik?** Ez.
- **Berako txokorik gustukoena?** Labiaga mendia.

Mendi lasterketetan

Bizikleta utzita mendi lasterketetan probatzea erabaki zuen, eta probatu orduko hartu zion gustua. Sara Trail lasterketan egin zuen estreinaldia eta geroztik «zenbat sufrimendu eta estualdi, baina batez ere, zenbat momentu on!».

Urte batzuk baditu dagoeneko eta «eguneroko bizitzaren eta motibazioaren arabera» aritu izan dela adierazi digu, «dedikazio handiagoko eta guttiagoko urteak izan ditut». Argi dio: «hau hobby bat da, gozatzea da nire helburua».

Gozatu bai, baina irabazi ere bai. Palmares ederra osatzen ari da: Nafarroako Txapelketa, Nafarroako Kilometro Bertikal Txapelketa, Taldekako Espainiako Txapelketa, Sarako Kontrabandisten Lasterketa lau aldiz, Arantzako Mendi Lasterketa bi aldiz, Bidarraiko Mendi Lasterketa hirutan, Artzainen lasterketa bitan, Olazti-Urbasa, Mendira joan etorria, Ezkaba trail, Suheskun trail, Ttutturru trail, Goizueta Trail eta Unzue trail irabazi ditu. Zerrenda luzea, bistan da, eta guztien artean bi ditu bereziak: «Arantzako lasterketa eta Sarako kontrabandistena. Arantzakoa lehenbiziko edizioa irabazi nuelako eta polita izan zelako; eta Sarakoa berezia delako».

Bere ezaugarrien harira ere mintzatu da, «igoeretan hobeki moldatzen» dela erranez eta aldiz, «jaitsieretan denbora gehien galtzen» duela onartuz. Gainerakoan, «lasterketa egunetan eta bezperan ahalik eta garbien jaten saiatzen» dela dio, baina «gainerako egunetan ez diot arreta berezirik jartzen».

Kontuak kontu, aitzinera begira segitzen du. «Lesioek lan dezente» eman izan badiote ere, orain, «minik gabe» dabil eta hori eta «aitatasunak eta lanak libre uzten dizkidaten uneak aprobetxatuz» kirola egiten segitu nahi du, «helburu zehatzik gabe». Mendi lasterketek «kirolaz gozatuz, lagun giroan egun ederrak pasatzeko aukera» ematen diotelako.

Urriza txapeldun eta Endika txapeldunorde, sariekin. MAIALEN ANDRES

Endikak estutu arren zazpigarren txapela jantzi du Urrizak

Saldiastarrak 30-27 galdu zuen irailaren 26ko finala baina bikain jokatu zuen eta estu hartu zuen txapelduna

TTIPI-TTAPA | SALDIAS

Javier Urrizak irabazi zuen erremonteko banakako bere zazpigarren txapela, irailaren 26an Galarretan jokatutako Kutxabankeko txapelketako finalean Endika Urrutia saldiastarrari 30-27 irabazi ondotik. Iruñekoak sufritu zuen Endika Urrutia ausartari irabazteko. Saldiaskoak arriskatu egin zuen, tantorik ikusgarrienak egin zituen eta finalaren zati handi bat aurretik ere izan zen, baina Urrizak sufritzen jakin zuen, defendatu zuen, une txarrak gainditu zituen eta amaiera ikusgarria ixten jakin zuen. Final zirragarria izan zen, denetik izan zuen eta zaleek eskertu egin zuten.

Txapelduna hotz hasi zen eta 0-5 aurretik jarri zen Endika markagailuan. Partida azkar zihoan, ia piloteorik gabe, eta hala gertatu zen 4-9koa arte. Hor berotu zen Urriza, piloteo on batekin, eta hamaikana berdindu zuen lehen aldiz. Partida berri bat hasi zen, nahiz eta Endikak serio eta arriskatuz jarraitu.

Partida berdindua joan zen eta hamaikanakoaren ondotik, 12, 13, 14, 15, 16, 18, 19, 20 eta 21ean ere berdindu egin zuten. Emozio handiko finala izan zen, nahiz eta Urrizak sakearekin bost falta egin zituen. Halere, hogeitabanakoaren ondotik bost tanto segidan egin zituen (26-21). Bazirudien partida hor hautsiko zela, baina Endika ez zegoen deus oparitzeko eta hogeitazazpina berdindu zuen. Final berri bat hasi zen, hiru tantora. Eta azken hiru tanto horiek Urrizaren alde erori ziren. Ez zen urduri jarri, eta Endikaren sake txarra ongi erantzun zuen, aurretik jartzeko. Defentsa handiarekin lortu zuen 29-27koa, eta 30-27koa, Endikak labur utzitako sake-erantzun bat errematatu ondotik.

NIRE USTEZ

ENDIKA URRUTIA
SALDIASKO PILOTARIA

«Ikusi dut txapela irabazteko gai naizela»

Nahiz eta galdu Endikak gustura akitu zuen eginiko partiduarekin. «Oso pozik nago eginiko partiduarekin, inoiz baino lan gehiago eman diot eta nire buruarekin oso konforme gelditu naiz. Amaieran pare bat tantotan azkenean nekatuta nengoen eta pasa egin dit. Oso ongi hasi naiz, bi tanto gogorrek faktura pasa didate». Jokaldirik politenak berak egin zituen eta jendearen txaloak eskertu zituen. «Jendeari eskerrak eman nahi dizkiot. Oso polita izan da, disfrutatu egin dut. Hurrengo pausoa finala irabaztea izanen da eta ikusi dut irabazten ahal dudala». Urrizak berak ere Endikaren lana goraipatu zuen. «Korrika asko eginarazi dit, asko sufritu dut txapea lortzeko, Endikak ezaugarri ikaragarriak ditu».

Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiko finalerako boskotea erabakia

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatu zuten urriaren 4an Lekunberrin eta, honenbertzez, erabakia gelditu da abenduaren 6an Donezteben jokatuko den finalerako boskotea: Iker Vicente gaur egungo txapelduna, Jon Rekondo, Eneko Saralegi eta Ruben Saralegi leitzarrak eta Oier Kañamares.

Pronostikoak betez, Iker Vicente izan zen bizkorrena bi kanaerdikoak, bi 60 ontzako eta oinbiko enborra mozten (12.52). Ia hiru minutu gehiago behar izan zituen Jon Rekondo leitzarrak (15.51). Hirugarren posturako lehia estua izan zen Saralegi anaien artean eta azkenean gazteenak, Enekok, lortu zuen, zortzi segundogatik. Finalerako azken txartela ematen zuen bosgarren posturako lehia, berriz, Kañamarestarren artekoa izan zen eta hemen Oier zazpi segundogatik nagusitu zitzaion Juleni.

Azkeneko bi sailkatuek, Goizeder Beltzak eta Xuban Kañamaresek, maila galdu dute. Zortzigarren postuan gelditu den Joxean Etxeberria zigatarrak, berriz, Lopezen aurkako jaitsiera kanporaketa eskatu du (Juan Jose Lopezek ez du kanporaketan parte hartu lesio baten ondorioz).

Jaitsiera kanporaketa jokatzeko, gehienez zortzi hilabeteko epea izanen da.

Vicente, Rekondo, E. Saralegi, R. Saralegi eta O. Kañamares dira finalistak.

AGENDA

URRIAK 15-29

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKASTAROAK

IRURITA
Koro ttiki
Gizarte Bilgunean, asteazkenero. Ttikienak 17:30ean eta, ondotik, koxkorrak.

LESAKA
Emakumeentzako prestakuntza saioak
Harriondoan, urrian, ortzegunero, arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara. Xehetasunak: 767. zenbakian.

Oroimen mintegia
Ramoni Ordoki gidari.
Asteazkenetan, 16:00etatik 17:30era.

Informatika ikastaroa
San Fermin elkarteak antolatua.
Urriaren 20tik azaroaren 19ra, astelehen eta ortzegunetan, 16:30etik 18:30era.

ELIZONDO
Hasiberri eta arituendako gaita eta atabala ikastaroa
Tomas eta Shanti Diazen eskutik, hurrenez hurren.
Arizkunenean, larunbatero, 09:00etatik 10:00etara (gaita 10:30 arte).

Brioche egiteko tailerra
Edorta Salvadorrek eskainiko du.
Arizkunenean, urriaren 16an, 17:00etatik 20:00etara.

Plastika lantegia
Arizkunenean, azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an, 17:30etik 19:00etara.

GOIZUETA
Emakume tailerra
Udaletxeko ganbaran, urriaren 17an eta 31n, 10:00etatik 14:00etara. Izena emateko: 674 08 69 26.

IÑAKI ATXA

ZUBIETA 'Isiltzen joan zirenak' ipuin-kontaketa
Ameli eta xirrikituen jostunak ipuin-kontalariaren eskutik.
Estalpean, urriaren 23an, 19:00etan.

ETXALAR
Ahobizi eta belarriprestentzako tailerra
Kultur etxean, urriaren 23an, 19:00etan.

BERA
Erlauntza antzezlana
Kultur etxean, urriaren 15ean, 19:00etan.

LEITZA
Emakume baserritarren topagunea
Atekabeltzen, urriaren 15ean, 11:00etatik 13:00etara.

IGANTZI
Emakumeentzako arte topaketa
Azaroaren 7ra arte, ortzirale (17:30etik 20:30era) eta larunbatetan (09:30etik 12:30era).

ARANTZA
Ahobizi eta belarriprestentzako tailerra
Herriko etxeko aretoan, azaroaren 6an, 19:00etan.

KIROLA

GARTZAIN
BTT ibilaldia
Urriaren 17an, 15:30ean.

GOIZUETA
Bisita gidatuak Artikutzan
Urriaren 18an eta 25ean (xehetasunak 35. orrialdean).

KONTZERTUAK

ELIZONDO
In Tempore abesbatza eta Ganbara orkestra
Urriaren 17an, elizan, 20:00etan hasita.

LEKAROZ
Baztan Kantuz
Urriaren 18an, plazatik abiatuta, 12:00etan.

ARANTZA
Dama beltzak
Eskolan, urriaren 31n, 20:00etan.

BERTSOAK

MALERREKA-BAZTAN-BORTZIRIAK
Haur eta helduentzako bertso eskolak
Urriaren 5etik aitzinera Ituren, Donezteben, Irurita, Arizkun, Lesaka, Bera, Etxalar, Arantza eta Igantzin (xehetasunak 766. zenbakian).

LIZARRA
Bardoak finala
Malerreka-Baztan, Leitza eta Berako taldeak.
Urriaren 10ean.

OSPAKIZUNAK

ELIZONDO
Ana Mari Marin margolariari omenaldia
Arizkunenea kultur etxean, urriaren 23an, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE
Ipuinen txokoa
Haizea Loiraren eskutik.
Urritik aitzinera, asteartero, 11:00etatik 12:00etara.

LEITZA
'Txor-txor' bakarrizketa saioa
Urriaren 15ean.

ETXALAR
Maksim magoa
Kultur etxean, urriaren 16an, 11:00etan.

'Euskañolitis'
Kultur etxean, urriaren 17an, 19:30ean.

ZUBIETA
'Isiltzen joan zirenak'
Ameli eta xirrikituen jostunek.
Estalpean, urriaren 23an, 19:00etan.

IRURITA
Erik eta Win
Sarrera dohainik eta edukiera mugatua.
Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, urriaren 25ean, 19:00etan.

ARANTZA
'6.000 metroan ere' dokumentala
Herriko etxeko aretoan, urriaren 23an, 19:30ean.

'Bakean dagoena bakean utzi'
Eskolan, urriaren 24an, 19:00etan.

Maksim magoa
Eskolan, urriaren 25ean, 17:00etan.

LEHIAKETAK

LESAKA
Beti Gazte argazki lehiaketa
Urriaren 31ra arte (xehetasunak 767. zenbakian).

Nire aukera

«Ikaslea motibatuko duen hezkuntza sistema behar dugu»

CECILIA ADIN URTASUN ELIZONDOKO GAZTEA

«Inposatutako hezkuntza sistemaren kontra ikasleria aktibatzeko» sortu den IKAMA gazte antolakundeko kidea da Cecilia Adin Urtasun (Elizondo, 2003).

Batxillerreko lehenbiziko mailako ikaslea da eta bete-betean bizi ditu «hezkuntza sistemak dituen gabeziak». Adinen ustez, hutsune nagusia «motibazioa galarazten duen» hezkuntza izatean dago, eta hori gerta ez dadin, «irakaskuntza-metodologiak errotik aldatu» beharko liratekeela uste du: «ikasleriak ikasi beharreko edukiak barneratzeko motibazioa beharbeharrezkoa delako». Mugimenduak dira aldaketarako giltza IKAMAren ustez, eta helburu horri tiraka eraiki zuten eurek ere taldea: «subjektu bat sortzeko eta hori aurkezteko beharra ikusi genuen».

Ikaslea erdigunean duen hezkuntza ereduaren alde

Euskal Herriko hezkuntza eredua irauliz, «ikasleen beharretara egokitua eta pertsonalagoa» den sistema baten alde bildu dira: «herritarra, burujabea eta ikaslea erdigunean jartzen duen sistema aldarrikatu nahi dugu, herritik eta herriarendako izanen dena».

Telelanaren trabak

Inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dute aldaketa. Izan ere, martxotik telelanean aritu dira eta orain, ikastetxera bueltan, «klaseko erritmoa berriz hartzea kostatuko zaigu, ordutegirik gabe lan egin dugu... eta berriz egokitzea ez da erraza izanen».

Gehiago ere bada: «telelanaren ondorioz inoiz baino ikasle indibidualistagoak bihurtu garela uste dut, geure buruarekin bakarrik lan egin dugulako, ikaskideen iritzirik edo ekarpenik jaso gabe».

«IKASLERIA KONTZIENTZIATU ETA AKTIBATU NAHI DUGU»

Buelta ere ez da behar bezala antolatu elizondoarraren ustez: «irailera arte izugarrizko ezjakintasuna izan dugu eta ez genekien noiz eta nola hasiko ziren klaseak, erabakiak hezkuntza komunitatearen iritziak aditu gabe hartu dituzte». Ikasleak «bertze behin» ahotsik gabe utzi dituztela salatu du: «lehenbiziko egunean erran zizkiguten zehaztu zituzten arau guztiak, informazioa eskola kontseiluan aipa zezaketen arren».

Adinentzat ikasturte hasiera «gogorra» izan da «hainbat arlo aldatu egin direlako». Zehazki, maskara egun guztian paratu behar izatea eta distantzia mantentzea «zail» gertatzen ari zaio: «batez ere aurten Malerrekako ikasleekin elkartu eta jendea ezagutzeko aukera dugun honetan, harremantzea ez da erraza izaten ari».

Kontzientzia piztea eta gazteria aktibatzea helburu

Zailtasunak zailtasun, taldeak harrapatu du aitzinera egiteko modurik: irailaren 12an aurkeztu zuten: «joan den ikasturtetik aurkezpena egiteko asmoa genuen eta koronabirusagatik gibelatu zen... eguna antolatzeko lantalde bat osatu eta azkenean egin genuen».

Dagoeneko martxan dira eta indartsu hasi dute bidea, asmo garbiekin: «gure helburu nagusia ikasleria kontzientziatzea eta arazoen aurka aktibatzea da. Ikuspuntu lokaletik, tokian tokiko problematikak aztertzea eta horiei aitzin egitea, hain zuzen».

Eta horretarako gakoa zein den badakite: «zerbait lortzeko ez dago mugitzea bertzerik». Beraz, taldean parte hartzeko gonbidapen argia egin dute: «lehenbiziko pausoa zure esku dago».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

LABAIEN. Zaharberritzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.

ERRENTAN EMATEKO

DANTXARINEtik hurbil apartamentua errentan emateko. Sukalde-egongela, komuna, logela bat eta beheko trastelekua. ☎690 38 81 34.



BERA. Gela bateko apartamentua errentan emateko. Berritua eta mobleztatua, sartzeko prest. Aparkalekuarekin. Erdigunean baina leku lasaian. Pertsona arduratsuek bakarrik kontaktatu. ☎629 97 00 02.

EROSI

Etxea, baserria, borda, errota, pisua edota terrenoa erosiko nituzke. Ez du inporta ze egoeratan dagoen. Beratik hasita Leitzaraino izan daiteke baita Zugarramurdin ere. ☎652 65 15 79 (Agustin).

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Bidasoa karrikan, garaje marra bat errentan emateko. ☎626 89 93 49.

SALGAI

BERA. Itzea karrikan 14m²ko aparkatzeko marra salgai. ☎633 04 55 24.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Ostatu batean astelehenetik ortziralera lanean aritzeko sukaldari laguntzailea behar dute. Esperientziarekin. ☎617 72 34 75.

BERA. Zalain jatetxean zerbitzaria behar dute. ☎948 63 09 67.

Urarekin lan egiten duen enpresa batek **langile-muntatzaile** bat behar du. PVC, PP eta PEarekin lan egin izana eta elektrizitate-elektronikan eta metal nahiz plastiko soldaduran ezagutzak baloratuko dira. Enpresan gelditu eta promozionatzeko aukerak. Bidali curriculuma: *lanaukera01@gmail.com*.

ESKARIAK

Hezkuntza ikasketak egiten ari den neska gazte bat astean bizpahiru arratsaldez **haurrak zaintzeko edota klaseak emateko** lan bila. ☎722 25 10 83.

Gizarte- eta osasun-arloko ikastaroa egina duen bat **interna** gisa aritzeko lan bila. ☎685 23 04 87.

Zerbitzari lanetan eta **haurrak zaintzen** esperientzia duen neska lan bila. ☎622 40 21 95.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

ETXALAR. Zakurkumeak oparitzeko. Mestizoak. Neurri ertainekoak. ☎686 67 31 05.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 · www.erran.eus

744 48 43 61 · info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ZUBIETA. Katuak oparitzeko. ☎671 83 46 07.

Ttiki hauek **familia bila** dabiltza. Jostalariak, abenturazaleak eta bizkorrak dira. ☎652 75 08 17.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

• Extra	4,07
• 1.koa	3,93
• 2.koa	3,79

Urruxak: €/kg kanal

• Extra	4,09
• 1.koa	4,04
• 2.koa	3,82

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak
• (15 egun ingurukoak).
Aretze mestizoak

• Urruxak	130,00
• Idixkoak	150,00

Aretze nabarrak

• Urruxak:	120,00
• Idixkoak	140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

• Sortu berriak:	3,26/3,36
• Zaldi-behorrak	1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

• 6-8 kilokoak:	7,20/8,60
• 8-10 kilokoak:	5,80/6,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 35 €
Zerri gizena 1,296 €
Zerramak 0,400€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 25etik urriaren 2ra bitarteko prezioak)

Bi katakume oparitzeko. ☎640 65 04 22.

Zortzi hilabeteko **txakur mestizoa**, Collie eta Mastin, opari. ☎630 18 48 47.

Urte bat eta erdiko **mastina oparitzeko**. Zakur zoragarria eta atsegina. Txiparekin eta txertoak hartuta. Maite dut baina etxean edukitzen uzten ez didatelako oparitu nahi dut. ☎672 23 14 69 / 627 78 43 62.

SALGAI

LEITZA. Txerrikumeak salgai, bizirik edo laberako prest. Prezioa telefonoz edo Whatsappez. ☎690 98 61 18.



Aker azpigorria salgai, urte batekoa. ☎618 96 05 49.

Setter ingeles **zakurkumeak** salgai, 2 hilabetekoak LOErekin. Aita eta ama arrunt langileak. ☎670 30 35 20.

Betizuak salgai. Argazkikoa ama bere ume urruzarekin. Manejatzeko modukoak. ☎655 70 60 73.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

BERA. Postas inguruan Audi baten giltza aurkitu dute. ☎687 87 14 31.

SALEROSKETAK

LESAKA. 800 akazia pikete salgai. ☎628 03 25 58.

90 cm-ko **bi ohatze** salgai. Bakoitza 300 eurotan. ☎673 54 87 67.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Ikusi sail honetako iragarkiak Interneten: ***https://erran.eus/sailkatuak***

URTEBETETZEAK

Helene Alzuri Lujanbio! Aurten, urriaren 14an, gurekin batera, beste bi laguntxo izanen dituzu Arantzan zure urtebetetzeko zorion kanta kantatzen! Zorionak eta muxu potoloak familia guziaren partetik!

Ander Bertiz Etxeberria etxeko ttikiak urriaren 11n 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoen eta bereziki Aimar eta Aialaren partetik.



Haizeder Mariezkurrenak 2 urte beteko ditu urriaren 22an. Zorionak sorgintxo! Goxokizko muxu haundi bat June, Lide eta Izargiren partetik!

Ioritz Iguzkiagirre Irigoien aranztarrak 8 urte beteko ditu urriaren 27an. Ongi ospatu zure eguna eta muxu haundi bat!

Urdazubiko **Pablo Irazoki Olaizola**k 16 urte bete ditu urriaren 10ean. Zorionak gure mutilari! Eta muxu haundi bat ama, amatxi eta aitatxiren partetik.

Aunitz urtez **Usoa**! Berandu baina seguru! Muxu haundi-haundi bat zure lankideen partetik. Nahi duzunean etorri bisitan!

Asier Mutuberria Pagola aranztarrak urriaren 20an urteak beteko ditu. Aunitz urtez zure 11. urtebetetzean. Ongi-ongi pasa eguna eta gozatu. Muxu haundi bat.

Aunitz urtez **Arantza**! Gure txantxikuak urriaren 18an urteak beteko ditu. Ongi ospatu zure eguna eta muxu bat lankideen partetik!

Aunitz urtez **Amaia**! Makilak eskuan toki zelaian zein mendian espezialista den gure lankideak urteak beteko ditu urriaren 24an. Ongi pasa eguna! Muxu bat!

SORTZEAK

- **Uxia Santiso Juanena**, Doneztebekoa, irailaren 15ean.
- **Laia Zugarramurdi Zorrondegi**, Goizuetakoa, irailaren 19an.
- **Nahikari Elizalde Marizkurrena**, Zubietakoa, irailaren 23an.
- **Alain Etxarte Otazo**, Etxalarkoa, irailaren 26an.
- **Hafssa Qassid Ouaka**, Legasakoa, urriaren 3an.
- **Xuhar Zabala Huitzi**, Goizuetakoa, urriaren 3an.
- **Nare Astiz Lujanbio**, Goizuetakoa, urriaren 3an.

EZKONTZAK

- **Ander Urroz Aleman** eta **Nerea Erasun Urroz**, Oiartzungoa eta Doneztebekoa, uztailaren 18an Donezteben.
- **Sergio Irazoki Eleta** eta **Tamara Descalzo Okba**, Sunbillakoa eta Doneztebekoa, uztailaren 28an Donezteben.
- **Daniel Fernandez Telletxea** eta **Itziar Arambillet Jaimerena**, Doneztebekoa eta Sunbillakoa, abuztuaren 8an Donezteben.
- **Emilio Jesus Zabala Gonzalez** eta **Ainhoa Irisarri Goienetxe**, Doneztebekoa eta Elgorriagakoa, abuztuaren 15ean Donezteben.
- **Cesar Daniel Peña del Rey** eta **Marta Beatriz Rodriguez San Martin**, Iruñekoak, irailaren 4an Lesakan.
- **Leonardo Cristovao Rodrigues** eta **Marcelly Costa Vispo**, Brasilgoak, irailaren 11n Donezteben.
- **Ibai Bereau Zapirain eta Agurne Maritxalar Salaberri**, Lesaka eta Igantzikoa, irailaren 25ean Lesakan.
- **Amaia Etxeberria Arozamena** eta **Candido Da Costa**, irailaren 26an Zugarramurdin.
- **Ladis Caballero Lantz** eta **Beatriz Otaegi Baleztena**, Lesaka eta Zegamakoa, urriaren 3an Lesakan.

HILBERRIAK

- **Manoli Arretxea Ariztia**, Iruritakoa, irailaren 23an, 98 urte zituela.
- **Mª Teresa Mitxelena Telletxea**, Berakoa, irailaren 23an.
- **Mª Jesus Etxenike Barberena**, Berakoa, irailaren 24an, 83 urte zituela.
- **Ana Mª Diosdado Perez**, Leitzakoa, irailaren 24an, 58 urte zituela.
- **Mª Jesus Arano Barberia**, Eratsungoa, irailaren 25ean, 85 urte zituela.
- **Sebastian Ubiria Telletxea**, Lesakakoa, irailaren 29an, 98 urte zituela.
- **Jose Jabier Sarratea Telletxea**, Doneztebekoa, irailaren 29an, 74 urte zituela.
- **Francisco Salaberri Bulman**, Oieregikoa, irailaren 29an, 85 urte zituela.
- **Julia Eugenia Alti Arizaleta**, Arizkungoa, urriaren 2an, 77 urte zituela.
- **Jesus Almandoz Mitxelena**, Arantzakoa, urriaren 2an, 85 urte zituela.
- **Jose Azkona Iturrospe**, Berakoa, urriaren 2an, 89 urte zituela.

URTEURRENA

Mª Carmen UGARTE GORTARI

Oronozen hil zen, 2019ko urriaren 2an, 95 urte urterekin
I. urteurrena

Urte bat ez da bizitza oso bat
ez baita aski izanen
etxetik barna utzitako zure usai, kolore
eta goxotasuna desagertzeko.

Maite zaitugu!

ZURE FAMILIA

IRACHE
tanatorioak
Nafarroako familien zerbitzura 1976tik
BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)
ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara
948 63 74 04 / 948 19 70 70

BB
BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak
BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU 365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO
Hil-ondorako kontratuarekin, aukeratu nahi duzun agurra
Doluan laguntza eta herentzia tramitazioa
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan, Bertizaranan eta Malerrekan
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo *info@ttipi.eus*
► **Eskelak**, **Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

KONTATU KONTUAK

JUAN MARI ONDIKOL

Landa eremuan zahartzea hizpide. Joan den urteko lehenbiziko esperientziaren ondotik, Euskal Herriko Unibertsitateak urtero egiten dituen udako ikastaroen baitan, Baztango Udalarekin elkarlanean antolatutako *Landa-eremuan zahartzea. Adineko pertsonak zaintzen laguntzeko sareak* izeneko ikastaroa egin zuten urriaren 4an Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. 25 lagunek parte hartu zuten, eta landa eremua oinarri hartuta, adineko pertsonen zainketaren inguruan erreferentea den Matia Fundazioko kideek beren esperientziak partekatu zituzten. Solasaldi eta mahai-inguruek osatu zuten egitaraua.

ALICIA DEL CASTILLO

Agoteen jatorriaren bila. Agoteen jatorri genetikoa zein den ezagutzeko helburuarekin, Madrilgo Complutense Unibertsitateko kideak Arizkungo Bozate auzoko bizilagunen DNA laginak biltzen hasi dira.

JUAN MARI ONDIKOL

Antxitonea trinketeko paleta goma txapelketa. Asier Argaratek eta Joseba Oskarizek irabazi dute Elizondoko Antxitonea trinketeko paleta goma txapelketa, lehen mailan. Finalean, 40-32 irabazi zieten Josetxu Huarte eta Mikel Ballarenari. Final nagusiaren aitzinetik bigarren mailakoa jokatu zuten eta Iñaki Iantzik eta Asier Gamiok 40-30 irabazi zieten Joseba Arizmendi eta Egoitz Gamiori.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Malerrekan herrietako kontsultategiak zabalik. Koronabirusa tarteko, hainbat hilabetez Doneztebeko osasun zentroan artatu izan dituzte Malerreka eta Bertizaranako herritarrak, itxita egon direlako herrietako kontsultategiak. Aste honetan, ordea, behar diren garbiketa lanak eginda, berriz zabaldu dituzte. Astearteaz geroztik, lehen bezala, bakoitza bere herrian artatua izanen da. Hori bai, «arau batzuk bete» beharko direla jakinarazi du Monica Martin Doneztebeko osasun etxeko zuzendariak: «jende pilaketak saihesteko puntual joatea hagitz garrantzitsua izanen da, ez lehenagotik ez beranduago ere». Horrekin batera, maskara soinean joan beharko da eta pazienteak laguntzaile bat behar baldin badu, «paziente bakoitzeko lagun bat» onartuko dute. Segurtasun tartea mantentzea ere ezinbertzekoa izanen da eta Covid-19aren sintomarik izanez gero, hitzordua hartua izanagatik ere, osasun zentrora deitu eta kontsultategira ez joateko eskatu dute. Bertzetik, Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekako herritarrei PCR probak Doneztebeko osasun zentro zaharrean egiten segitzen dute. Martinek joan den astean Ttipi-Ttapari azaldu zionez, «orain arte, egunean, gutxienez 33 eta gehienez 57 PCR proba egin ditugu».

Sara eta Etxalarren arteko ehiza ituna berretsi dute. Urteroko ospakizunik gabe berretsi dute aurten Sara eta Etxalarren arteko usategietako sare bidezko uso harrapaketa ahalbideratzen duen hitzarmena. Irailaren 27an Lizarietan Miguel Mari Irigoien eta Battite Laborde Etxalarko eta Sarako alkateak bildu ziren, Pablo Muñez Nafarroako Gobernuko Ingurumen Zuzendari Nagusiarekin batera, eta haiek sinatu zuten hitzarmena.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ateraldi edo ekitaldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidali mezua *info@ttipi.eus*era edo whatsappez 744 484361ra.

PLAZAN BAZAN

MEZU IRUDIKATUA

Idatzi irudi bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta Amatxi Pantxikak dioena jakinen duzu. Erran zahar bat da.

Marrazkiak: **Garbiñe Ubeda (Aiurri)**

INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

ARROTZA

Kobazuloan gaude, Pleistozeno garaian, duela 40.000 urteko eszena bati begira. Erne erreparatzen baduzu, oso gauza bitxiak aurkituko dituzu, hain zuzen, garai hartan aurkitu behar ez zenituzkeenak. Badira gutxienez hamaika. Ikusten dituzu?

1 .....
2 .....
3 .....
4 .....
5 .....
6 .....
7 .....
8 .....
9 .....
10 .....
11 .....

MARGOTU

Eman kolore apur bat goiko harpetarrei.
Zenbat eta biziago, orduan eta ederrago.

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T. **948 63 54 58** | M. **744 48 43 61**
info@ttipi.eus | **erran.eus**

www.ttipitxartela.info

767 aleko irabazleak >

Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Miren Jone Agesta Migeltorena | DONEZTEBE
Onddo Ta Punto - Kamiseta bat
Joakin Mutuberria Aizega | SALDIAS
La Rhune - 2 sarrera
Esozia Arroabarrena Aleman | ELIZONDO
Galaxy Park - 2 sarrera
Naiara Riopedre Huitzi | BERA
Irrisarriland - 2 sarrera
Fco. Javier Sarratea Goienetxe | ZIGA
Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera
Jose Martin Bereau Mikelarena | LEITZA
Lanku - liburu bat
Edurne Aranburu Alzugarai | LESAKA
Lanku - liburu bat
Iosu Larretxea Larralde | URNIETA

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

2 sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

MARTIKO
www.martiko.com

Lote bat

KARTING INDOOR IRUN
www.kartingindoorirun.com

Sarrera bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com

2 sarrera

LIBURUAK

- Orbainak
- Begiak Zerumugan

- Gozategi - G puntua
- Joemak eta Polasak

elkar
www.elkar.eus

LA GUNTZAILEAK

www.okilletailerraesp.blogspot.com.es

www.martiko.com